
eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO
ZIENTZIEN FAKULTATEA

KAZETARITZAKO GRADUA

PROIEKTU BATEN GRADU
AMAIERAKO LANA

2019-2020

JAKI - N

EGILEA: MAIALEN APOITA SÁENZ DE CÁMARA

ZUZENDARIA: AINTZANE PAGADIGORRIA RUIZ

2020ko Maiatza

“Gradu Amaierako

Lanaren egileak adierazten du lan original eta propio honetako datuak benetakoak direla, eta hala izan ezean bere gain hartzen duela jokabide ez-egokien (plagioen, irudien erabilera bidegabeen eta abarren) erantzukizuna. Irudien copyrighta haien jabeena edo lizentziadunena da. Dibulgazio helburuekin baino ez dira erabili hemen, lanaren marko teorikoa edo analisia ilustratze aldera”

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
1.1. Zuzendariaren gutuna	1
1.2. Testuingurua	2
1.3. Ideiaren iturburua	3
2. FORMATUA	4
2.1. Hizkuntza	5
2.2. Target-a	5
2.3. Merkatu azterketa	5
2.4. Ordutegia	10
2.5. Gaia eta kapituluak	11
2.6. Egitura	12
2.8. Lokalizazioak	13
2.9. Aspektu formalak	21
2.9.1. Tratamentu bisuala	21
2.9.2. Diseinua	22
2.9.3. Erreferentziak	23
2.9.3.1. Tematikoak	23
2.9.3.2. Hausnarketa eta ikuspegi kritikoa bideratzen dutenak	25
2.9.3.3. Gaztetasuna eta ikuspegi gaztea dutenak	27
2.9.3.2. Estetikoak eta teknikoak	28
3. EKOIZPENA	32
3.1. Lan-taldea	32
3.2. Ekoizpen plana	34
3.3. Aurrekontua	35
3.4. Finantziazio plana	36
3.4.1. Enpresa babesle posibleak	36
3.4.2. Produktuen salmenta	39
3.4.3. Youtube partner-a	40



JAKI-N

3.5. Banaketa	41
3.5.1. Promozioa	43
3.5.2. Promozio-bideoa	44
4. PROGRAMA PILOTOA	45
3.1. Aurkezpena	45
3.2. Egitura	45
3.3. Gaiaren erreferentziak	46
3.4. Lokalizazioak	47
3.5. Pertsonaiak	49
3.6. Ekoizpen plana	50
3.7. Eskaleta	51
3.8. Gidoi literarioa	54
3.9. Gidoi teknikoa eta storyboard-a	58
3.10. Elkarrizketa blokearen plantak	67
5. ONDORIOAK	68
BIBLIOGRAFIA	69
ERANSKINAK	71



1. SARRERA

1.1. Zuzendariaren gutuna

Maialen Apoita naiz, 22 urteko kazetaritza ikaslea. Arabarra naiz: Gasteizen jaio baina Ribabellosan eman dut bizitza osoa.

Beti izan dut jakingura pil-pilean, txikitatik. 16 urterekin jada abeltzaintzaren industriaren inguruko informazioa bilatzen hasi nintzen: dokumentalak, artikuluak, testigantzak Interneten... Finean, haragiaren industriaren inguruko informazio ugaria eskuratu nuen. Gero, informazio guzti hori interpretatu eta ondorioak atera nituen. Emaizta: begetarianoa egin nintzen aldarrikapen gisa, gaur egunera arte.

Informazioa eskuratzeko eta barneratzeko nahi horri tiraka, erabaki nuen zabalkuntza falta zitzaidala, nik arakatutako esparru askotako edukiak hedatu nahi nituela, komunikatu nahi nuela. Horregatik, kazetaritza ikasi nuen.

1.1.1. GrALaren egokitzapena

2020ko martxoaren hasieratik guztiz ez-ohikoa eta berria den egoera bizi dugu. Hori dela-eta, gure bizitzako esparru asko moldatu behar izan ditugu, gizarte bera aldatu egin delako.

Orain dela bi hilabete epe motzean eta epe ertainean genituen proiektu gehienak bertan behera utzi ziren eta egoera berri batera moldatu behar izan genituen. Nire kasuan, ikaskuntza eta lan-metodologiak aldatu behar izateaz aparte. **Gradu Amaierako Lana aldatu behar izan nuen.** Bada, azarotik martxora arte sormen lan baten produkzioan aritu nintzen: jasangarritasunaren inguruko dokumentala eramango nuen aurrera.

Horretarako, lan-talde bat koordinatu nuen, iturriekin jarri nintzen kontaktuan, elkarrizketak hitzartu nituen, dronekin grabaketak egiten dituen enpresa batekin jarri nintzen kontaktuan grabaketak doan lortzeko, lokalizazioak hautatu ni-

Urte hauetan, gizarteak naturan eta ekosistemetan duen inpaktuaz jabetu naiz eta, ni bezala, hala egin du gizarteak orokorrean. Ekosistemen suntsipena pasatu da larritasun gutxirekin tratatutako gaia izatetik, garrantzi handia izatera. Jada badakigu gure ereduak aldatu behar direla jasangarritasunaren ize-nean, baina oraindik teoriatik praktikara salto egitea kostatzen zaigu. Badakigu zer egin behar den, baina ez dakigu nola.

Horregatik, ekintzak sustatu nahi ditut telebista programa proiektu honen bitartez. Bizipenak batu eta hedatu nahi ditut, besteentzat baliagarriak izateko. Denok daukagu zerbait esateko, denok izan gaitezke besteen inspirazioa.

Azken finean, gehiago balio du milak egiten duten apur banak, batek egiten duen mila baino.

tuen eta gidoi literarioa, teknikoa eta storyboard-a prestatu egin nuen. Finean, **dokumental bat grabatzeko beharrezkoa den erreproduktzio osoa burutu nuen.** Baita grabazio faseari data bat jarri nion: apirilak 9, 10 eta 13.

Hala ere, esan bezala, mundua gelditu egin zen eta, aurrera jarraitu ahal izateko, nire lana aldatu behar izan nuen. Honela, **erreportaje telebista programa** baten proiektua egiteari ekin nion. Bi hilabete nituen bederatzi hilabeteko lana burutzeko. Zaila izan da lan hau burutzea: alde batetik, ikus-entzunezkoen munduaren **oinarri teorikoak ez** nituen eta, beraz, ikasketa bikoitza egin behar izan nuen; eta, beste alde batetik, Covid-19 birusaren harira sortutako **ezjakintasun eta urduritasun egoerak** eragina izan zuen ere lan baldintzetan. Dena den, buru belarri jarri nintzen eta, lan zorrotza egin ostean, lortu egin nuen.

1.2. Testuingurua

Azken aldian, denok entzun ditugu *jasangarria*, *ekologikoa* edo *naturala* hitzak baina, funtsean, inork al daki zer esan nahi duten? **Zerk egiten du prozesu bat edo produktu bat jasangarria eta zerk ez?** Hitzak entzun ditugu, bada garaia horien esanahia ulertzeko.

Jasangarritasuna gaurkotasun handiko gaia da, batez ere orain bizi ari dugun egoerari erreparatzen badiogu: **SARS-CoV-2 koronabirusa**, hainbat adituren aburuz izatez animaliek soilik pairatzen zuten gaixotasuna, izaki bizidunen organismoetara heldu da, kalte izugarria sorraraziz. Fenomeno honi *zoonosis* deritzaio eta, besteren artean, Ekologistak Martxan taldeak salatu duen bezala, izaki bizidunek ekosistemetan eragiten dituzten aldaketen ondorioz, ekosistemaren oreka apurtzen ari da eta patogeno asko espeziaren hesia apurtzen ari dira, beste espezieetara helduz, gizakiak barne.

Horrekin batera, azkeneko urteetan Euskal Herrian ezagutu ditugu klimaren aldaketarekin lotuta dauden **hainbat krisi-egoera**, gure bizimoduaren eta gizarte ereduaren jasangarritasuna zalantzan jarri dituztenak. Besteak beste, azken hiru urteetan:

2018an Euskal pinuen "**banda marroia**" gaixotasuna hedatu egin zen, onddo mota bik sorrarazita, aldaketa klimatikoak eragindako gi-

ro heze eta beroaren ondorioz ugaldu zena.

2019an Enkarterriko Glefaran Biomasa erraus-tegiaren emisioak ikertu zituen Ikerketa Zientifikoen Goreneko Kontseiluak eta datu kekkagriak atera zituen. Ondorioz, 2016tik protestetan aritzen ziren herritarren eta *Gueñes Bizia* plataformaren aldarrikapenak areagotu ziren, haien **osasuna arriskuan** zegoela salatuz.

2020ko maiatzan Zubieta ibaian **ehundaka arrain hilik** agertu ziren Ekondakin erraus-tegiak amoniakoa isuri egin zuelako.

Gertakari hauek eta koronabirusa eragin duen zoonosia elkarren alboan jartzen baditugu, ondoriozta daiteke **lurraren heriotza iragartzen duten seinaleak egon, badaudela**. Bizi-eredu berriak behar ditugu eta ekosistemak zaintzen ikasi behar dugu, beranduegi izan baino lehen.

Joseba Azkarragak *111 Akademia*-n adierazi bezala, zibilizazio moderno-industrialaren beheraldian kokatzen gara gaur egun eta aldaketak datoz, baina oraindik jakiteke dago aldaketen bidea ordenatua eta emankorra izango den ala, aldiz, kaotikoa. Euskal Herrian, Azkarragak dioenari tiraka, gizarteak **aldaketa hauei buruz hausnartzeko espazioa eta denbora behar du**.



1.3. Ideiaren iturburua

Azkarragak faltan somatzen duen espazio hori sortzeko asmoarekin jaiotzen da Jaki-n erreportaje telebista programa. **Jasangarritasunaren gaia hartu eta Euskal Herrian heziketa, eztabaida eta kritika gunea sortu** nahi du programak, herritarrei hitza emanez.

Horretarako, 22 urteko kazetari gazte bat Euskal Herrian zehar bidaiatuko da bertako jendeari elkarrizketak egiteko asmoz. Gaztetasunak igartzen duen espiritu kritikoari men eginez, herritarren bizipenetan hondeatuko du eta, finean, **herritarrak bihurtuko ditu eredu**. Honela, orain arte etxean geratu diren ideia eta trikimailuak zabalduko dira gizarte osoan, gainontzekook gurera ekar ditzagun.

Baratz propioa duen arabar baten, euri-ura erabiltzen duen nafartar baten edota erabilitako gauzei bizi berri bat ematen dion zuberotar baten testigantzak izango dira protagonistak programa honetan.

Jaki-n-ek **zortzi kapitulu** izango ditu, 55 minutokoak. Bertan, aurkezle gazte honen hausnarketek eta zalantzek kapituluaren ibilbidea eraikiko dute herritarren bizipenak ezagutzeko eta haiekin elkarrizketak bideratzeko. Herritar hauek jasangarritasunaren kontzeptu etxekoi bat helaraziko dute; **herritar baten eguneroko jardunen moldaketan erreparatuko da**.

Kapitulu bakoitzean, Euskal Herriko lurralde bat aurkeztuko da eta gai zehatz baten inguruan hausnartu egingo da, besteak beste: **elikagaien ekoizpen jasangarria, plastiko berrerabilgarriak, arrantza jasangarria edota euskal basoen biziraupena**. Azkeneko kapituluan, ordea, Euskal Herria osoko lokalizazioak agertuko dira gai berri baten bueltan hitz egiteko eta programari osotasuna emateko asmoz.

Honela, ikusle guztien etxeetara helduko dira eguneroko ekintzak moldatzeko ideiak jasangarritasunaren eredu hartzeko, ekosistemen ongizatea bermatzeko grinarekin.



2. FORMATUA

Izenburua: Jaki-n
Generoa: Erreportaje telebista programa
Iraupena: 55 min
Hizkuntza: Euskara
Kapitulu kopurua: 8
Maiztasuna: Astean behin
Emisio ordua: 22:00
Katea: EITB1

Jaki-n telebistako erreportaje programa berri bat da: **gaztea, gertukoa, kritikoa, gaurkotua eta eraikitzailea**. ETBIn emititzeko egokituta, munduko beste herrialdeetara esportatu daitekeen formatua dugu. Zergatik? Formatu honen indarpuntuak honako ardatzetan laburbil ditzakegu:

1. Gaurkotasun handiko gaia da, batez ere **Covid-19 birusak** gizartea eta ekonomia aztoratzen ari den testuinguru honetan.

2. Jasangarritasuna **mundu maila osoan** garrantzia duen gaia da.

3. Gertukoa da; herritarren ikuspegia txertatzen du.

4. Gazteen ikuspegi kritikoa azaleratzen du, baina izaera eraikitzaile batekin.

Jaki-n gaurkotasuna jorratzen duen telebista erreportaje programa da. Izan ere, programa mota hauen audientzia datuak arrakastatsuak dira gaur egun. Honen adibide dira **Ur Handitan, Salvados eta Equipo de Investigación** saioak. Esaterako, hauek dira programa bakoitzaren datuak 2017-2018[1] denboraldian:

Programa	Lurraldea	Denboraldia	Kuota
 UR HANDITAN	Euskal Herria	2	% 7'8
 SALVADOS	Espainia	11	% 11'95
 equipo de investigación	Espainia	9	% 6'7

Programa hauen datuak adierazten duten moduan, saio hauek arrakasta handia dute ikusleengan. Jaki-n-ek leku hori bete nahi du gaurkotasuneko gai bati buruz hitz egiteko, euskal herritarren bizipenen bitartez eta aurkezle gazte batek gidatua, bere hausnarketak eta ikuspegiak txertatuz.

[1] Ez dira 2019ko denboraldiko datuak aurkitu-

2.1. Hizkuntza

Jaki-n edozein hizkuntzatan ekoiztea posible da, baita edozein herrialdetan ekoiztea ere, edozein lurraldek daukalako eredu jasangarriak txertatzeko beharra.

Hala ere, programaren proposamen hau **euskaraz egiteko eta ETBlen emititzeko** landu da. Gainera, Euskal Herri osoko lurraldetasunei protagonismoa emateko asmoz, euskalkiak azaleratu eta balorean jartzearen aldeko apustua egingo du programak.

2.2. Target-a

Programa hau **familia osoari zuzenduta dago**, adin guztietako pertsonak izan dezaketelako interesa. Programaren helburua ohitura jasangarrien eraikuntza denez, kutsu hezitzailea eta ikuspegi kritikoa eta anlitikoa dauka. Beraz, **familiako txikiek, gazteek eta helduek ikaskuntza** aurki dezakete Jaki-n programan.

Aldaketa handiak nahi badira, txikia den horretik hasi behar da.

2.3. Merkatu azterketa

Jaki-n programak ETBlen hartu dezakeen lekua ezagutzeko, honako **AMIA azterketa** egin da:

INDARGUNEAK

- Formatu berria
- Belaunaldi gazteen kezkei arreta eta garrantzia eman
- Euskararen gailentasuna, baina euskalkiei balorea emanaz
- Euskal lurraldeen garrantzia
- Target zabala
- Eduki multimediaren erabilera

AHULTASUNAK

- Euskaraz mintzatzen denei mugatzen da
- Euskarazko programen audientzia txikia
- Gazteen audientzia txikia telebistan
- EITBko audientzia txikiak

AUKERAK

- Gaurkotasun handiko gaiak
- Lehiakide urriak
- Arazo global baten aurrean Euskal Herriko egoera aztertzen da.
- Gertutasuna herritarrekin
- Lokalizazio anitzak eta gertukoak
- Klimaren aldeko mugimenduen loratzea

MEHATXUAK

- Streaming plataformen popularizazioa: *Netflix, HBO, Amazon Prime...*
- Beste kateen programazioa
- Eguraldiaren menpekotasuna grabatzeko
- Gizartearen kontzientzia falta

Aipatu den bezala, Jaki-n Euskal Herriko lurraldeen eta euskararen aldeko apustua egiten du. Hala ere, horrek murriztu dezake ikusle potentzialen kopurua. Izan ere, Eustat-ek plazaratutako datuen arabera, 2016an soilik zekien euskaraz arabarren % 28,5, bizkaitarren % 36,6 eta gipuzkoarren % 57,4. Datu hauek haintzat hartuta, hauteman daiteke euskarazko kateen datuak ez direla onuragarriak. CIES-en arabera, esaterako, Euskal Herrian ETB1 katea 9. postuan kokatzen da.

Horrekin batera, *Netflix*, *HBO* edo *Amazon Prime* bezalako streaming plataformen arrakastak telebista mehatxupearan jartzen dute. Hori dela-eta, Jaki-n eduki multimedietaz baliatuko da plataforma digitaletan ere presente egoteko: EITBko web gunean eta *Youtube*-n programa nahieran ikusteko aukera luzatuko da eta eduki osagarriak eskegiko dira sare sozialetan.

Gainera, Jaki-n programak formatu berri-zailea jorratzen du; gaztetasunaren ikuspegitik

kutsu kritiko, hezitzaile eta eraikitzailea dauka eta, horrek, hain zuzen, indargune esanguratsua suposatzen du.

Gaztetasunaren ikuspegiari tiraka, programa honek gaurkotasan handiko gaia jorratzen du. Izan ere, *Fridays For Future* bezalako nazioarteko gizarte mugimendu ekologistetan ikus daiteke gazteen anbizio handia, espiritu kritikoa eta jarrera proaktiboa mundu osoan. Hori dela-eta Jaki-n-ek beste herrialdeetara esportagarria den formatua da ere.

Honengatik guztiagatik, aukera oso ona da mundu mailako arazo bati Euskal Herriko biztanleriak nola egiten dion aurrera jorratzea.

Lokalizazioak, halaber, oso anitzak izango dira eta gaira egokitzeko ahalmen handia egongo da. Aldiz, grabatzerako orduan, kanpoaldeak gailenduko direnez, egoera meteorologikoen mehatxua suposa dezakete.

Behin azterketa eginda, Jaki-n-entzako honako programazio estrategia proposatzen da: **2020ko udazkeneko denboraldian emititzea, asteen behin, ETB1n**. Guztira zortzi kapitulu izanda, **bi hilabetez** egongo litzateke programa emisioan, baina hori luzatzeko aukera egongo litzateke, jasangarritasunaren gaia oso zabala delako eta eduki asko daudelako jorratzeke.

Kapitulu bakoitza 55 minutu irauteko prestatu egin da eta publizitatearentzako 10 minutu gehituko zaizkio. Beraz, totalean, programa **65 minutu inguru** iraungo du.


Emisio egun optimoa aurkitzeko, **2019ko irailaren azkeneko asteko parrila** aztertu egin da, Euskal Herriko eta Espainiako kate jeneralistak aintzat hartuta. Ikerketa egiteko, lanegunak hartu dira kontuan, hau da: astelehenetik ostiralera.

Audientzia datuei erreparatuta, deigarriak dira, batez ere, *El Hormiguero (Antena 3)* eta *El Intermedio (LaSexta)*. Nahiz eta biak aisialdikoak eta gazteleraz eginak izan eta astelehenetik ostegunera emititzen diren, **audientzia handia** bereganatzen dutenez, Jaki-n programaren lehiakide bezala automaten dira. Esaterako, martxoaren 23an *El Hormiguero*k % 18,1eko pantaila kuota izan zuen eta *El Intermediok* % 8koa[2].

Telecinco katearen Gran Hermano VIP *reallity*-ak 2019ko denboraldian % 32,3ko audientzia izan zuen, Kantar Mediaren arabera. Beraz, lehiakidetasuna sor daiteke ere Jaki-n-ekin.

ETBleko *prime time*an, aldiz, *Gure Kasa* ostean *Ahotsak*, *Euskalonski*, *Escapadas con Joseba Arguiñano* eta *ETB Kantxa* programak emititzen dira.

[2] 20 minutos aldizkaria: “*El hormiguero vuelve pegando fuerte y anota máximo de audiencia*”, 2020ko Martxoaren 24a.



ASTELEHENA
2019ko irailaren 23a

	21:00-22:00	22:00-23:00	23:00-0:00
1	Telediario	TVEmos	Malaska (telesaila)
2	Grandes diseños	Genius (telesaila)	
Antena 3	Antena 3 noticias	El Hormiguero	La Voz Kids
cuatro	Ven a cenar conmigo	First Dates	Zinema
5	Informativos	Got Talent España	
Deportes	El Intermedio	Zinema	
1	Gure Kasa	Ahotsak	Egunak egin du
2	Teleberri	Eguraldia	Juego de cartas
d	Kuzey Güney (telesaila)	Zinema	
neox	Big Bang Theory (telesaila)	Family Guy	
NOVO	Las mil y una noches (telesaila)	El secreto de Ferina (telesaila)	Zinema
7	La que se avecina (telesaila)	Zinema	
DMAX	Fast N' Loud	Cómo lo hacen?	Clandestino
Energy	The Sniffer (telesaila)		
13	TRECE al día	El Cascabel	
24h	Telediario	La noche en 24h	
clan	Bob Esponja	Hendry Danger	Escuela de Rock
Boomer	Nicky, Ricky, Dicky y Dawn	Los Thunderman (telesaila)	Dragon Ball (telesaila)

ASTEARTEA
2019ko irailaren 24a

	21:00-22:00	22:00-23:00	23:00-0:00
1	Telediario	TVEmos	Zinema
2	Grandes diseños	El rey de la sabana	La máquina de matar de Hitler
Antena 3	Antena 3 noticias	El Hormiguero	Zinema
cuatro	Ven a cenar conmigo	First Dates	GH Vip
5	Informativos	GH Vip	Zinema
Deportes	El Intermedio	Zinema	
1	Gure Kasa	Euskalonski	Egunak egin du
2	Teleberri	Eguraldia	Zinema
d	Kuzey Güney (telesaila)	Elementary (telesaila)	
neox	Big Bang Theory (telesaila)	Zinema	
NOVO	Las mil y una noches (telesaila)	El secreto de Ferina (telesaila)	Zinema
7	La que se avecina (telesaila)	Zinema	
DMAX	Fast N' Loud	Radio noticias (telesaila)	Los archivos desconocidos de Egipto
Energy	Alerta Cobra (telesaila)		
13	TRECE al día	El Cascabel	
24h	Telediario	La noche en 24h	
clan	Bob Esponja	Hendry Danger	Escuela de Rock
Boomer	Nicky, Ricky, Dicky y Dawn	Los Thunderman (telesaila)	Dragon Ball (telesaila)

	21:00-22:00	22:00-23:00	23:00-0:00
1	Telediario	Masterchef Celebrity	Lazos de Sangre
2	Grandes diseños	Zinema	
Antena 3	Antena 3 noticias	El Hormiguero	Toy Boy (telesaila)
cuatro	Ven a cenar conmigo	First Dates	Informe TEM
5	Informativos	GH Vip	Señoras del (h)AMPA (telesaila)
laSexta	Deportes	El Intermedio	Zinema
1	Gure Kasa	Escapadas con Joseba Arguiñano	Egunak egin du
2	Teleberri	Eguraldia	Liar (telesaila)
d	Kuzey Güney (telesaila)	911 (telesaila)	
neox	Big Bang Theory (telesaila)	Modern Family	
NOVO	Las mil y una noches (telesaila)	El secreto de Ferina (telesaila)	Zinema
7	La que se avecina (telesaila)	Zinema	
DMAX	Fast N' Loud	Radio noticias (telesaila)	Zinema
Energy	Mentes Criminales (telesaila)		
13	TRECE al día	El Cascabel	
24h	Telediario	La noche en 24h	
6	Bob Esponja	Hendry Danger	Escuela de Rock
Boing	Nicky, Ricky, Dicky y Dawn	Los Thunderman (telesaila)	Dragon Ball (telesaila)

ASTEAZKENA
2019ko irailaren 25a

OSTEGUNA
2019ko irailaren 26a

	21:00-22:00	22:00-23:00	23:00-0:00
1	Telediario	TVEmos	Estoy vivo (telesaila)
2	Grandes diseños	Las mejores fugas de Alcatraz	En Portada
Antena 3	Antena 3 noticias	El Hormiguero	Zinema
cuatro	Ven a cenar conmigo	First Dates	911 (telesaila)
5	Informativos	GH Vip	
laSexta	The very best of El Intermedio	El Intermedio	El jefe infiltrado
1	ETB Kantxa	Ahotsak	Egunak egin du
2	Teleberri	Eguraldia	Vascos por el mundo
d	Kuzey Güney (telesaila)	Elementary(telesaila)	
neox	Big Bang Theory (telesaila)		
NOVO	Las mil y una noches (telesaila)	El secreto de Ferina (telesaila)	Zinema
7	La que se avecina (telesaila)	Zinema	
DMAX	Fast N' Loud	Radio noticias (telesaila)	Alienígenas
Energy	Hawai 5.0 (telesaila)		
13	TRECE al día	El Cascabel	
24h	Noticias 24h	La noche en 24h	
6	Bob Esponja	Hendry Danger	Escuela de Rock
Boing	Nicky, Ricky, Dicky y Dawn	Los Thunderman (telesaila)	Dragon Ball (telesaila)



	21:00-22:00	22:00-23:00	23:00-0:00
1	Telediario	El Paisano	Viaje al centro de la tele (programa)
2	Días de cine	Premios Donostia	La suerte en tus manos
Antena 3	Antena 3 Noticias	Zinema	
cuatro	Ven a cenar conmigo	First Dates	Donde menos te lo esperas
5	Informativos	Volverte a ver	
laSexta	The very best of El Intermedio	La Sexta Columna	Equipo de investigación
1	Euskalonsky		ETB Kantxa
2	Teleberri	Restaurante sin barreras	El joven Montalvo (telesaila)
d	Vive Dial	Zinema	
neox	Big Bang Theory (telesaila)		Zinema
NOVO	Las mil y una noches (telesaila)	El secreto de Ferina (telesaila)	Zinema
F	La que se avecina (telesaila)		Zinema
MAX	Control de fronteras	Cómo lo hacen?	Zinema
Energy	CSI Miami (telesaila)		
13	TRECE al día	El lado bueno de las cosas	Zinema
24h	Telediario	Días de cine	
clásico	Zinema		
Boo	Zinema	Nicky, Ricky, Dicky y Dawn (telesaila)	Los Thunderman (telesaila)

OSTIRALA
2019ko irailaren 27a



2.4. Programaren ordutegia

Estatuko eta EAeko parrilla aztertu ondoren eta kontuan hartuta Jaki-n programa familia osoarentzako zuzenduta dagoela, *prime time* ordutegian emititzea proposatzen da. Izan ere, ordutegi hori da familia osoa telebista ikusten dagoen eguneko momentu bakarra. Behin ETBleko eta Euskal Herriko eta Espainiako gainerako programazioa aztertu den, ondorioztatu da Jaki-n-en emisio ordu egokia izango dela: **Asteazkenetan, 22:00etatik 23:00etara, Gure Kasa** ostean.

Emisio ordua finkatzeko, kontuan hartu da kate jeneralistek albisteak hartzen dituztela programazioaren hezurdura gisa eta, beraz, parametro horien arabera kokatu behar dela Jaki-n.



22:00-23:00 tartea egokia da ikuslearengan gogoeta-jarrera sortu nahi baldin bada: egunak hausnarketarako tarte bat badauka, argi dago tarte hori gaua dela. Eguna bukatutzat emanda, lasaitzeko asmoa agertzen da eta, horrekin batera, gogoetak egiteko tartea irekitzen da. Horregatik, Jaki-n **pentsamendu horiek mugiarazteko** aukera atsegin eta mesedegarri bezala agertzen da.

Jaki-n asteazkenetan emitituko denez eta **irailaren azkeneko astean** hasiko denez, egutegia honela geratzen da:

Jai egunak

Emisio egunak

Iraila	AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
		1	2	3	4	5	6
	7	8	9	10	11	12	13
	14	15	16	17	18	19	20
	21	22	23	24	25	26	27
Kap. 1	28	29	30				

Urria	AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
				1	2	3	4
Kap. 2	5	6	7	8	9	10	11
Kap. 3	12	13	14	15	16	17	18
Kap. 4	19	20	21	22	23	24	25
Kap. 5	26	27	28	29	30	31	

Azaroa	AL	AS	AZ	OG	OR	LR	IG
Kap. 6	1	2	3	4	5	6	7
Kap. 7	8	9	10	11	12	13	14
Kap. 8	15	16	17	18	19	20	21
	22	23	24	25	26	27	28
	29	30					

2. 6. Gaia eta Kapituluak

Jaki-n-en gai nagusia jasangarritasuna da. Kazetari gazte batek, bere hausnarketak gidari bezala hartuta, eta Euskal Herriko herritarrei hitza emanez, bilatuko ditu eredu jasangarriak gaur egun txertatzeko eta bermatzeko bideak.

Horrela, Jaki-n programan gaur egungo gatazka garrantzitsu bati aurre egingo diogu: **natura vs. zibilizazioa**. Gatazka nagusi hau oinarri hartuta, Jaki-n prograren zimenduak eraikiko ditugu:

NATURA	ZIBILIZAZIOA
Berdeak, urdinak eta marroiak	Grisak
Harrizko etxeak	Eraikin berriak
Bideak	Kaleak
Baratza	Suermerkatua
Animaliak	Jendea

Hori oinarri izanda, kapitulu bakoitzean gai orokor honen **esparru jakin bat** jorratu egingo da eta **Euskal Herriko lurralde jakin batean**


garatuko da, behin eremu bakoitzaren berezitasunak aztertu diren. Azkeneko kapituluan, ordea, Eskal Herri osoan garatuko da:

Kapitulu zenbakia	Lurraldea	Gaia
1	Araba	Elikagaien ekoizpena
2	Lapurdi	Arrantza jasangarria
3	Gipuzkoa	Basoen eta basapiztien biziraupena
4	Nafarroa Behera	Oinatz hidrikoaren murrizketa
5	Nafarroa	Birziklapena eta ber-erabilgarritasuna
6	Bizkaia	Energia berriztagarriak
7	Zuberoa	Arropak
8	Euskal Herria	Garraiobide jasangarriak



2.7. Egitura

Jaki-n programako kapitulu bakoitzak **55 minutu** iraungo du. Honako estruktura jarraituko dute kapitulu guztiek:



Programak bi ardatz nagusi ditu: **aurkezleak lehenengo pertsonan egiten duen ibilbidea** (sarrera, hausnarketak eta amaiera) eta **pertsonaien bizipenak** (elkarrizketak eta reality egoerak).

Sarrera gaia kokatzeko erabiliko da. Aurkezleak, lehenengo pertsonan, gai konkretuaren inguruko **jakinminaren berri emango du eta lehendabiziko hausnarketa** abiatuko du. Laburrean, gaiaren erpinak sorrarazten dizkion lehen mailako hipotesiak azalduko ditu.

Jarraian, **lehenengo elkarrizketa** abiatuko da: aurkezleak iturriak identifikatuko ditu eta jarraian, galdera-txanda abiatuko da. Tartean, lau reality egoera agertuko dira, batzuk giro soinuarekin eta beste batzuk elkarrizketaren *off* ahotsarekin.

Elkarrizketa amaitutzat emateko, bi pertsonaiak elkarrekin joango dira eta agurtuko dira. Mo-

mentu horretan bertan hausnarketa hasiko da.

Elkarrizketa berri-berria izanda, aurkezleak ideiak eta datuak ordenatuko ditu eta konklusio txikiak aterako ditu. Hala ere, beti **hipotesi berriak** agertuko dira, horregatik beharrezkoa izango da hurrengo elkarrizketa abiatzea.

Elkarrizketa-hausnarketa eskema hau errepikatuko da lau aldiz kapitulu bakoitzean, **lau elkarrizketa eta bost hausnarketa** izan arte.

Elkarrizketa osteko hausnarketek eskema orokor berdintsua jarraitzen duten arren, **bostgarren hausnarketa** berezia izango da. Kapitulu azkeneko gogoeta denez, lau elkarrizketetako informazioak konparatuko dira eta ikuspegi orokorrago bat jorratuko da.

Horrela, amaierak **konklusio estrapolagarri** baten antza hartuko du, informazio-iturri guztietatik hartutakoa bat eginda eta testuinguruan kokatuta izanda.

2.8. Lokalizazioak

Lokalizazioek paper garrantzitsua beteko dute programan, kapitulu bakoitza lurralde batean grabatuko delako. Horregatik, lokalizazioek, programaren estetika orokorrarekin bat egiteaz aparte, lurralde bakoitzaren berezitasunen be-

rrri emango dute. Orokorrean kanpoaldeak gailenduko dira eta naturaren eta zibilizazioaren arteko kontrasteak bilatuko dira koloreen bidez: kolore berdeak, urdinak eta marroiak kolore grisekin tartekatuko dira.

Araba eta elikagaien ekoizpen jasangarria:





Lapurdi eta arrantza jasangarria:



Gipuzkoa eta arropa jasagarria:





Nafarroa Behera eta oinatz hidrikoaren murrizketa:




Nafarroa eta birziklapena eta ber-erabilgarritasuna:



Bizkaia eta energia berriztagarriak:



Zuberoa eta basoen eta basapiztien biziraupena:



Euskal Herria eta garraiobideak:



2.9. Aspektu formalak

2.9.1. Tratamendu bisuala

Grabazio gehienak kanpoaldean egingo direnez, ekipo arinak erabiliko dira, kalitatea arriskuan jarri gabe. **Multikamera** errealizazio teknika (2 kamera) erabiliko da, batez ere elkarrizketen blokeari begira, **Reflex kamerak** erabilia: arinak dira eta kalitate ona eskaintzen dute prezio ekonomikoan.

Elkarrizketak plano estatikoen bidez grabatuko dira eta hausnarketak eta *reality* egoerak, aldiz, plano mugikorrek. Beraz, kameraren dardara ekiditeko, elkarrizketetan **tripodeak** erabiliko dira eta *reality* egoeretan eta hausnarketa blokeetan **estabilizatzailea** erabiliko da: honela, kamerak mugimendu askatasun handia izango dute.

Plano motei begira, hausnarketa blokeetan **lehen planoak** eta **plano ertainak** erabiliko dira, aurkezlearen gogoetari aniztasun bisuala emateko. Elkarrizketetan, aldiz, **plano ertainak** eta **plano orokorrak** erabiliko dira, lokalizazioek paper garrantzitsua betetzen dutelako; beste pertsonaia bat izango balira bezala hautemango dira. *Reality* egoerei dagokionez, **plano ertainak** eta **xehetasun planoak** erabiliko dira, gertutasuna transmititzeko eta aipuek atentzioa beregana dezaten.



Soinuari dagokionez, **paparreko mikrofono inalanbrikoak** eta **kanoidun mikrofonoak** erabiliko da. Izan ere, programaren ezaugarriak kontuan hartuta eta jakinda espazio zabalak gailenduko direla, mugimendu askatasuna lortu nahi da. Gainera, elkarrizketetan plano orokorrak erabiliko direnez, saihestu nahi da kableak ikusgai egotea.

Koloreen bitartez Euskal Herriko naturaren eta zibilizazioaren arteko kontrastea irudikatuko da. Horregatik, belarraren kolore **berdeak**, zerua-ren eta uraren kolore **urdinak** eta zuhaitzen kolore **marroiak** tartekatuko dira zibilizazioaren kolore **grisekin**. Beraz, kolore horien garrantzia azpimarratzeko, pertsonaiek eta aurkezleak ekidingo dute horien erabilera eta, ahal den neurrian, arropa beltzak alde batera uzten saiatuko dira. Beste elementuetan (atrezzo-a, arropak...) erabil daitezkeen koloreak dira, esate baterako: gorriak, horiak edota zuriak.



2.9.2. Diseinua



Irudi korporatiboaren diseinua programak erabiltzen dituen kolore berdeen (natura) eta grisen (zibilizazioa) erabilera jarraitzen du. Beraz, diseinuak **naturaren eta zibilizazioaren arteko gatazka** irudikatu behar du, giro gazte eta eraikitzaile batekin.

Logotipoa programaren identitatea denez, irudi baten bidez **programaren mamia** agertu behar da, era bisual eta original batean. Horregatik, lau kontzeptuen bueltan eraiki da logotipoa:

1. Natura eta zibilizazioa
2. Pentsamenduak
3. Pertsonak
4. Gaztetasuna

Lau ideia horiek transmititzeko era aproposena pertsona baten **perfil grisa** irudikatzea da eta, horren barruan, landarez osatuta dagoen **burmuin berdea** txertatzea. Horren beheko aldean, programaren izena agertzen da, **Jaki-n berdez pentsatzen duen pertsona batekin lotzeko.**

Izan ere, kolorearen psikologiaren [3] arabera, hostoen berdea, natura irudikatzeaz aparte, programaren helburuekin zerikusia duten beste kontzeptu batzuk irudikatzen dituzte: **osasuna, harmonia, oreka eta hasiera.**




JAKI-N



[3] Koloreak gizakiaren pertzeptzioetan eta jokaeran duten eragina ikertzen duen ikerketa eremua

2.9.3. Erreferentziak

2.9.3.1. Tematikoak



El escarabajo verde

Ingurumenari eta ekologismoari buruzko programa da, *La2* katean emititzen dena. Jasangarritasuna eta biodibertsitatea aintzat hartuta, erreportaje dibulгатiboak ekoizten dira gaur egungo gizartean eredu berriak txertatzeko.



Hazte eco

Iraupen gutxiko kapituluekin, *Atresmediako* programa honek **jasangarritasunarekin lotura duten aurrerapenei buruz** mintzatzen da: hirietan txertatzen diren garraiobideak, arropa ekologikoa, birziklapena... Adituei elkarrizketa txikiak egiten dizkiete, kaleko elkarrizketak egiten dituzte eta kontsumoaren eta birziklapenaren inguruko gomendioak ematen dituzte.

hazteco 

Espacio protegido

Canal Sur-en emititzen den programa honetan, Jose María Montero kazetariak Andaluziako **ingurumena mantentzeko** lan egiten duten aditu eta boluntarioekin hitz egiten du, batez ere natura-turismoari begira.




Terra Verda

Kataluniako *TVE*-ren dibulgazio programa honetan, azken urte hauetan **ingurunean emandako aldaketak** mahai gainean jartzen dira argazkien konparaketaren bidez. Kasu batzuetan guneen okerragotzea iragartzen da eta, beste batzuetan, eredu jasagarriari esker egondako aurrerapenak erakusten dira. Ikuslea hausnartzera bideratzeaz aparte, ingurumenaren aldeko aldaketak proposatzen ditu.



State of the planet

Hiru kapituluko *BBC*ko programa honetan, David Attenborough-ek hainbat adituekin elkarrizketak egiten ditu ingurumenak sufritzen ari den **krisiari aurre egiteko** erantzunak aurkitzeko.




Eco trip: The real cost of living

Gure egunerokoan erabiltzen ditugun **produktuen jatorriari** buruz mintzaten da Estatu Batuetako *PBS* kateko programa hau. Honen helburua da adieraztea zer-nolako inpaktua duten ingurumenean guztiok erabiltzen ditugun produktuak.



2.9.3.2. Hausnarketa eta ikuspegi kritikoa bideratzen dutenak



Scott y Milá

Mercedes Milák elkarrizketak bideratzen ditu jarrera kritiko batekin. **Bere iritzia** plazaratzen du eta ez dauka arazorik elkarrizketatuek esandakoa **kolokan jartzeko**.



Viajando con Chester

Risto Mejidek aurkeztutako programa honetan, pertsona famatuak ikus daitezke haien alde pertsonala azaleratzen eta **haien kezkak eta iritzia** adierazten.



Detrás de la verdad

13TVko Ikerketa-kazetaritza programa. Bertan gaurkotasuneko gaiak jorratzen ziren **errepor-taje, elkarrizketa eta eztabaiden bidez**.



Otra vuelta de tuerka

Pablo Iglesias politikariak aurkeztutako elkarrizketa programa. Interneten eskegitzen delarik, pertsona famatu desberdinek Iglesiasekin gai anitzei buruz hausnartu egiten dute.



Zero Complaints

KBS hego korear katearen programa honek kontsumitzaileengana jotzen du haien kezka eta iradokizunak aldarrikatzeko. Hainbat esparru jorratzen dituzte: elikagaiak, botikak, altzairuak...



Lagun mina (2011)

Laburmetraia honek bi pertsonen pertzepzio desberdinen islapena egiten du. Pertsonaia batek lagun oso gertu bezala jotzen du bestea eta besteak, berriz, ez hainbeste. **Bi pertzepzio desberdin** hauek analisia bideratzen dute ikuslearengan, pertsonok barrualdean dugun posizionatzeko behar horri dei eginez.



2.9.3.3 Gaztetasuna eta ikuspegi gaztea dutenak

La chica de las series

María Zamora gazte eta kanporakoiak gaurkotasuna duten telesail eta filmei buruzko galdeketak egiten dizkio hala pertsona famatuei nola kaleko jendeari, kutsu umoretsu eta alaiarekin.



The Social

Eskoziako BBC kateak sortutako plataforma digitala da. Bertan, gazteek gaur egungo gai desberdinei buruzko bideoak igotzen dituzte, haien bizipenekin eta iritziekin.



La gata de Schrödinger (Youtuber)

Dibulgazioan espezializatutako kanal honetan, Rocío Vidalek, ikuspegi kritikoarekin, gaurkotasuneko gaiei buruz bere hausnarketak eta ikerketak plazaratzen ditu eta aldarrikatzen du pertsona guztiak kritikoak izan behar direla. Gainera, askotan, debateak bideratzen ditu.



Hola Julen (Youtuber)

Julen Hernándezek, Donostiako kazetari gaztea, bere Youtube-ko kanalean (HolaJulen) gaurkotasunarekin zerikusia duten gai desberdinak jorratzen ditu **elkarrizketen bidez, hausnarketan bidez eta analisisen bidez**, esaterako: Jaizkibeleko auzia, *fake news*-ak, *pipolization*-a (politikarien alde gizatiarra adieraztea), baita desafioak egiten ditu ere gero ondorioztapenak ateratzeko.



2.9.2.4 Estetikoak eta Teknikoak


Ur Handitan

Multikamara errealizazio teknika erabiltzen dute.



Reality egoerak egiten dituzte.

Elkarrizketak anitzak dira eta aurkezlea beti agertzen da planoan.



Elkarrizketa blokeetan **plano ertainak** eta **orokorrak** gailentzen dira eta *reality* egoeretan, aldiz, **xehetasun planoak**.

Herri txiki, infernu handi

Euskal Herriko lokalizazioek garrantzi handia dute programan.



Multikamera errealizazio teknika erabiltzen dute.

Reality egoerak erabiltzen dira, kasu honetan kutsu umoretsuarekin.



Elkarriketak egiten dituzte eta elkarrizketatzailea planoan agertzen da. Gainera, iturriek haien euskalkietan hitz egiten dute.

Plano amerikarrak eta plano orokorrak gailentzen dira.

Salvados

Lokalizazioei garrantzia ematen dizkiete.



Multikamara erabiltzen da.

Elkarrizketak bideratzen dira, aurkezlearen presentziarekin.



Plano amerikarren eta plano orokorren erabilera anitza. Elkarrizketetan lehen planoak ere erabiltzen dira.



Equipo de investigación

Multikamera erabiltzen dute.



Pero a mí me salió como un nódulo

Elkarrizketak egiten dira baina, kasu honetan, aurkezlea ez da planoan agertzen.

Aurkezleak, kapituluaren hasieran, **aurkezpen txiki bat** egiten du, gaia kokatuz.



Elkarrizketetan **lehen planoak eta plano ertainak** gailentzen dira

3. EKOIZPENA

3.1. Lan-taldea

Aurkezlea eta zuzendaria

Maialen Apoita



Gaur egun Kazetaritza graduko 4. mailan dago.

2019ko ekainetik irailera Gasteizko Cadena Ser irratian egin zuen lan, praktikaldian. Bertan, egunerokotasuneko albisteak idazteaz, editatzeaz eta lokutatzeaz aparte, erreportajeak burutu zituen: Arabako Jaibus zerbitzuaren 20 urteurrenaren harira bata, Pink Dragons emakumezkoen hockey taldeari buruzkoa beste bat eta Euskal Herrian autogestio bidez jarduten duten jantokien proiektu pilotoei buruzkoa azkena.

Hockey Lineako jokalaria da, CHL Dragons taldean senior eta emakumezkoen kategorietan dago eta Euskadiko Ligan jarduten du bi kategoria desberdin horietan.

Gainera, hockey entrenatzailea eta irristaketa irakaslea ere bada 2017. urtetik Jostari enpresan.

Hizkuntzaren aldetik, eleanitza da: ama hizkuntza gaztelania izanik, euskarazko maila oso altua du eta ingelesez eta italieraz maila ertaina du.

Lan-taldea

Zuzendaria	Maialen Apoita
Errealizadorea	Eider López
Ekoizle burua	Maialen Muro
Erredaktoreak	Maidar Barrenetxea eta Andoni Lopez
Kamerariak	Anton Garaita eta Julen Garcia
Zuzeneko soinu teknikaria	Unai Gonzalez
Ekoizle laguntzaileak	Nerea Garcia eta Xabier Gonzalez
Editoreak	Pablo Guillén eta Nagore Aizbitarte
Soinu posprodukzioa	Markel Bilbao

Zuzendaria (Apoita), errealizadorea (López) eta ekoizle burua (Muro) izango dira lan-taldearen gidariak eta haiek zehaztuko dute jardunaren norabidea. Beraz, prozesu guztian egongo dira presente.


Zuzendariak kazetariekin -erredaktoreekin- (Barrenetxea eta Lopez) dokumentazio eta gidoi taldea osatuko du eta programaren eduki guztiak kudeatuko ditu.

Errealizadoreak multikamera grabazioa eta edizioa antolatuko du, grabazio eta edizio taldeekin batera: **bi kamerariak** (Garaita eta J.

García), **zuzeneko soinu teknikaria** (U. Gonzalez), **erredaktore bat** (Barrenetxea) eta **ekoizle laguntzaile bat** (N. García).

Ekoizle buruak, **ekoizle laguntzaileekin batera** (N. García eta X. Gonzalez), programaren nondik-norakoak kudeatuko ditu edizio taldearekin: **bi editore** (Guillén eta Aizbitarte) eta **soinu posprodukzio teknikaria** (Bilbao).

Prozesu guztietan zuzendariak, errealizadoreak eta ekoizle buruak elkarrekin lan egingo dute fase eta talde guztien arteko koordinazioa bermatzeko.



3.2. Ekoizpen plana

1. astea				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
Dokumentazioa eta gidoia (1. Kap)	Dokumentazioa eta gidoia (1. Kap)	Dokumentazioa eta gidoia (1. Kap)	Dokumentazioa eta gidoia (1. Kap)	Dokumentazioa eta gidoia (1. Kap)

2. astea				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
Grabazioa (1. Kap)	Grabazioa (1. Kap)	Grabazioa (1. Kap)	Grabazioa (1. Kap)	Grabazioa (1. Kap)
Dokumentazioa eta gidoia (2. Kap)	Dokumentazioa eta gidoia (2. Kap)	Dokumentazioa eta gidoia (2. Kap)	Dokumentazioa eta gidoia (2. Kap)	Dokumentazioa eta gidoia (2. Kap)

3. Astea				
ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
Edizioa (1. Kap)	Edizioa (1. Kap)	Edizioa (1. Kap)	Edizioa (1. Kap)	Edizioa (1. Kap)
Grabazioa: (2. Kap)	Grabazioa: (2. Kap)	Grabazioa: (2. Kap)	Grabazioa: (2. Kap)	Grabazioa: (2. Kap)
Dokumentazioa eta gidoia (3. Kap)	Dokumentazioa eta gidoia (3. Kap)	Dokumentazioa eta gidoia (3. Kap)	Dokumentazioa eta gidoia (3. Kap)	Dokumentazioa eta gidoia (3. Kap)

Ekoizpen plana egituratzeko, *Ur Handitan* programaren eredia hartu egin da. Horretarako, bere ekoizpen plana aztertu egin da eta antzeko eredia jarraitu da Jaki-n programaren ekoizpen plangintzarako.

Grafiko honetan ikus dezakegunez, **kapitulu bakoitza ekoizteko hiru asteko lana** egingo da, aurrereprodukzio, produkzio eta posprodukzio faseei erantzunez. Grafika honetan islatuta dagoen moduan, faseak astez aste tartekatu egingo dira zortzi kapituluak bukatu arte, eskema berdina jarraituz.

Grabaketak iraileko lehenengo astean hasiko lirateke, lehenengo kapituluak ekoiztuta izateko emisio datarako: **irailaren 30a**.

Zuzendariak eta erredaktore taldeak astebete izango dute kapituluaren dokumentazioa egiteko, perfilak bilatzeko eta edukiak antolatzeke.

Ondoren, **errealizadoreak, ekoizleak, bi kamerariak eta soinu-gileak** grabazioak egingo dituzte beste astebetean. Bitartean, dokumentazio taldeak bigarren kapitulari ekingo dio.

Azkenik, **erredaktoreak, bi editoreek eta soinu-Produkzio arduradunak** kapituluaren edizioa eta posprodukzioa bideratuko dute beste astebetean. Bitartean, grabazio taldeak bigarren kapituluarekin lanean egongo da eta, dokumentazio eta gidoi taldeak, aldiz, hirugarrenarekin.

3.3. Aurrekontua



Jaki-n programaren kapitulu bat egiteko aurrekontu estimatuta egin da, **ETBlen emititzeko** prestatuta. Horretarako, gaur egun ikusentzunezko sektoreko **lan-hitzarmenak** kontu-

tan hartu dira. Estimatu da ETBlentzako Jaki-n programaren kapitulu bat ekoizteko 3 asteko lana behar dela. Hori dela-eta, honako aurrekontua prestatu da:

GIDOILARITZA, EKOIZPEN ETA EDIZIO TALDEA		
ITEM-A	UNITATEA	GUZTIRA
Zuzendaria	1	1688,40
Ekoizlea	1	1442,40
Errealizadorea	1	1442,40
Erredaktorea	1	1011,90
Ekoizle laguntzaileak (2)	2	1073,40
Editoreak (2)	2	1257,90
Kamerariak (2)	2	950,43
Soinua	1	950,43
Soinu posprodukzioa	1	378,30
PRODUKZIO GASTUAK ETA ADMINISTRAZIOA		
ITEM-A	UNITATEA	GUZTIRA
Garraioa eta bidaiak	5	750,00
Elikadura	5	750,00
Telefonia	1	100,00
Tresneriak / Papertegi	1	31,00
Mezularitza	1	31,00
	Guztira kapituluka	11858,06

Hala ere, aurrekontua egokituko litzateke egoeraren edo momentuko premien arabera.

3.4. Finantziazio plana

Jaki-n-en finantziario iturri nagusia EITB izango da. Hedabide honen laguntza izateko, Jaki-n programa EITBko UniTalent-era aurkeztu ahal izateko egokitu da.

Bestalde, **finantziario iturri osagarriak** bilatuko dira: **enpresa babesleak, produktuen salmenta eta Youtube partner-a.**

Babesleak berriztagarritasuna, jasagarritasuna eta ekologismoa kontuan -eta oinarri- izanik lan egiten duten enpresak eta partikularrak izango dira. Kapitulu bakoitza eskualde batean grabatuko denez, **babesa ere eskualdeen arabera** izateko prestatu da. Hala ere, badira

Euskal Herria osoan azpiegiturak dituzten enpresak, hala nola; Zuaitzo.

Babesle guztiak euskaldunak izango dira, Jaki-n programaren oinarri bat lurraldetasuna delako, eta, ahal den neurrian, bertako produktuei eta komertzioari emango zaio lehentasuna.

Babesle izan daitezkeen hurrengo enpresak produktu oso desberdinak ekoizten dituzte eta sektore desberdinetan mugitzen dira, baina guztiek dute faktore batzuk komunean: **euskaldunak dira, berritzaileak dira ekoizpenean eta metodologia ekologisten eta jasagarrien aldeko apustua egin dute.**



3.4.1. Enpresa babesle posibleak

Arabako enpresak:

A&B

Bioteknologia Laborategia da, erregaien sektorearentzako, mantentze-lanetarako, desinfekzio-lanetarako eta uren trataerarako produktuak eskaintzen dituzte.



Udapa

Nekazari ekoizleen kooperatiba, Eusko Label patata merkaturatzen duen bakarra.



Gerdau

Txatarra hondakinetatik altzairua ekoizten duen enpresa.



JAKI-N

37

Gipuzkoako enpresak:



Lufe

Altzaitu ekologikoak ekoizten ditute, tokiko zurarekin eta jasangarritasunaren ziurtagiriarekin

Elosegui

Txapelak ekoizten dituzte, eskuz eginak eta prozesu tradizionalekin.

Iparraldeko enpresak:

Hazitik Lilia

Landare mintegia. Bertan, landare hibridoak, klasikoak eta tokikoak dituzte. Landareei egiten dizkieten tratamenduak ekologikoak dira eta ez dute elementu kimiko kaltegarriekin lan egiten



Hemen elkarte

Garapen sostengarria duten tokiko enpresa txikien elkarte.



Txab'hola

Zurezko altzairuen enpresa. Tokiko zura erabiltzen dute eta sostengarritasunaren eta produktu ekologikoen ziurtagiria dute.



Nafarroako enpresak:

El obrador ecológico

Okindegi eta goxotegia. Osagai natural eta ekologikoak erabiltzen dituzte eta prozesu tradizionalekin ekoizten dituzte elikagaiak



Basorlegi

Edalontzi berriztagarriak ekoizten dituen enpresa, batez ere ekitaldi jendetsuetan erabiltzen den aldi bateko plastikoari aurre egiteko.



Skunk Funk

Arropa denda da. Ingurugiroan inpaktu txikia suposatzen duten oihalak erabiltzen dituzte. Gainera, bigarren eskuko arropak jasotzeko eta saltzeko zerbitzua eskaintzen du.



Bizkaiko enpresak:

Itsaskorda

Arrantzarako, nekazaritzarako eta abeltzaintzarako produktuak diseinatzen, ekoizten eta saltzen dituen enpresa bizkaitarra.



Ingeteam

Energia elektrikoan espezializatzen den talde teknologikoa.



3.4.2. Prouktuen salmenta

Programak hainbat produktu jarriko ditu salgai: **ber-erabilgarritasuna** izango da oinarri, erabilera bakarreko plastikoaren kontrako jardun gisa. Katalogo osoa programaren web gunean salgai egongo da.

Esate baterako, honako produktu hauek izango dira nagusiak: **Erosketak egiteko oihaleko poltsak, kautxu eta oihalezko motxilak, botila berrerabilgarriak, banbuzko termoak eta paper birziklatuarekin egindako koadernoak.**





3.4.3. Youtube partner-a

Maiztasun jakin batekin bideoak Youtubera eskegiz gero eta bisita kopuru handia izanez gero, plataforma honen bitartez diru-irabaziak lor daitezke. Gainera, zenbat eta harpidedun gehiago eta "gustoko dut" gehiago izan, diru-sarrerak orduan eta handiagoak izango dira.



Esate baterako, sare sozialetako marketinean ezpezializatutako Influencer Marketing Hub errekurtsioak honelako estimazioak egiten ditu:

300.000 bisita hilean	➔	\$428- \$713
450.000 bisita hilean	➔	\$641 - \$1,069
600.000 bisita hilean	➔	\$855 - \$1,425

Adibidez:



372.894 bistaratze ➔ \$690




123.770 bistaratze ➔ \$690

Yutubek, halaber, bideoetan **publizitatea** jartzeko aukera ematen du eta, horrek, noski, diru-irabaziak handitzen ditu

Gainera, Youtube plataforman nagusitzen den erabiltzaile perfila **gazteena** da[4], beraz, honi esker, telebistaren bitartez bereganatzen ez dugun publiko gaztea Youtuben aurki daiteke.

[4] VIZZ agentzia. (2018ko urria), *Estudio estratégico de influencers*.



3.5 Banaketa



Jaki-n telebistan emititzeko prestatu da. Hala ere, programaren target-a eta gaur egungo egoera kontuan hartuta (baliabide digitalen kon-

tsumo handia), berebizikoa ikusten da Jaki-n **online** kontsumitzeko aukera luzatzea. Estrategia hori aurrera eramateko, hainbat baliabide erabiliko dira:

EITB-ren web gunea

Jaki-n-eko kapituluak **nahieran** kontsumitzeko aukera eskaintzeaz aparte, **web gunean eduki gehigarriak** eskegiko dira, publiko gaztearen artean online kontsumoa gailentzen dela kontutan hartuta.

Kapituluan esplizituki agertu ez diren azpigaiekin edo xehetasunekin elikatuko da web gunea, baita kapituluaren posprodukzioan baztertu diren uneak eskegiko dira ere.



Sare sozialak

Twitter, Instagram eta Facebook plataforma sozialak eszenatoki oso aproposa dira programaren indargune den gertutasun hori ikuslegoan ere lortzeko, ez soilik iturriekin. Publikoarekin harreman estuago bat eraiki daiteke eta **norabide anitzeko komunikazioa** sustatu daiteke: programa eta ikuslearen artekoa edota ikusleen beraien artekoa.



Esate baterako, kapitulua telebistan emititzen den bitartean **traola** agertuko da, Twitter-eko erabiltzaileak iruzkinak plazaratzeko.

Bideo txikiak ere sor daitezke iturrien erantzunekin edo aurkezlearen gogoetekin, 2 minutuko piezetan.


Twitter izango da adierazpen horiek zabaltzeko plataforma nagusia. Bertan, bideoak gehienez 2:20 minutuak izan behar dira, beraz, pieza guztiak luzera antzekoa izango lukete. Instagram TV kanalak bideo motzak plazaratzeko aukera oso egokia eskaintzen du.

Instagram-en, dena den, argazkiak gailenduko dira. **Lokalizazioen argazkiak** partekatu daitezke eta erabiltzaileak saia daitezke asmatzen nongoak diren. Gainera, taldearen eta elkarrizketatuen argazkiak igo daitezke ere, erabiltzaileak izateko burututako lanaren nolabaiteko segimendua.

Facebook, bestalde, gainerako sare sozialetan argitaratu denaren berri emateko erabiliko da gehien bat, baita telebistako emisioen promozioa egiteko. Erabiltzaileen arteko **eztabaidarako eta trukerako gunea** ere suposa dezake.



Gainera, azaldu den moduan, belaunaldi gazteen artean oso plataforma erabilia den Youtube-n Jaki-n ere presente egongo da. Bertan, **programako kapitulu guztiak** eskegiko dira.



3.5.1. Promozioa

Programa ezagutzera emateko, **merchandising-a eta promozio-bideoa** erabiliko dira.

Jende-mugimendu handiko euskal gunetan, programaren logotipoa duten objektuak banatu egingo dira emisio data baino aste batzuk lehenago, herritarrak programaren berri izan dezaten eta horren izaera ezagutu dezaten. Hala nola: gometxak.



Beste alde batetik, EITBko kanaletan eta sare sozialetan **produkten zozketak** antolatuko dira jarraitzaile gehiago lortzeko eta difusioa handitzeko.

Gainera, **promozio-bideoa zabalduko da, 30 segundokoa**. Bertan, aurkezleak programaren gaia aurkezten du eta jende guztia animatzen du Jaki-n ikustera.

3.5.2 Promozio-bideoa

Jaki-n programaren promozioa biribiltzeko, minutu erdiko bideoa ekoiztu egin da. Bertan, programaren mamia islatu egin da: Alde batetik, **naturaren eta zibilizazioaren arteko kontrastea** eta **arazo klimatikoak**; beste alde

batetik naturaren balorea; eta, azkenik, Jaki-n programa arazoak konpontzeko laguntza gisa.

Hau oinarri harturik, honelako gidoia prestatu egin zen:

Iraupena	Irudia	Soinua	Musika
0'10"	Eremu industrializatuak, kutsadura, suteak, zaborra...	Over ahotsa: musika	In <i>crescendo</i>
0'10	Eremu berdeak, lur-sailak, ibaiak, basoak...		Summum-a
0'10	Aurkezlea landa eremuan	On ahotsa: "Zer da jasangarritasuna? Zer da oinatz hidrikoa? Zer da biodibertsitatea eta zergatik babestu behar dugu? Zer egin dezakegu, guk, euskaldunok klimaren alde? Galdera hauei erantzuna emateko, Jaki-n. Asteazken gauetan, ETB1en"	Baxu, bigarren plano batean

Bideoaren lehenengo hamar segunduetan ingurumenaren suntsipena irudikatu egiten da **gune industrial zabal eta kutsatzaileen** irudi gris eta tristeen bidez.

Hurrengo hamar segunduetan, ordea, zaindu behar ditugun **gune berdeen xehetasun planoak** tartekatzen dira: landareak, loreak, ani-

mali txikiak... Baina, bapatean, irudia beltzean gelditzen da, gure ahaleginik gabe eta ekintza jasangarririk gabe ez dagoelako gune berderik.

Horregatik Jaki-n programako **aurkezlea** agertzen da azkenik, programan landuko diren **kontzeptuen inguruko galderak** egiten eta programa aurkezten.



Bideoa



JAKI-N, ETB1EKO PROGRAMA BERRIA: EUSKAL HERRI JASANGARRIA ERAIKITZEKO HELBURUA

4. KAPITULU PILOTOA

4.1. Aurkezpena

Programa honen lehenengo kapitulua elikagaien ekoizpen jasangarriari buruzkoa izango da.

Konkretuki, lau elkarrizketen bidez, elikagai jasangarrien ekoizleen eta horien erosleen perfil anitzak jarriko dira kamera aurrean eta,

halaber, azaleratuko da, bakoitzaren egoera edonolakoa izanda, **beti egongo direla erosketa kontzientea eta jakituna egiteko aukera desberdinak.**

Horretarako, oraindik nekazaritza eta abeltzaintza tradizio handia duen euskal lurraldera mugituko da aurkezlea: **Araba.**

4.2. Egitura

Programako kapitulu guztietan bezala, lau elkarrizketa eta bost hausnarketa egingo dira

1. elkarrizketa: autokontsumo bidez gehien bat elikatzen den familia, lautadako herri batean bizi dena. Haiek baratze bat eta oiloak dituzte; bertatik hornitzen dira arrautzez eta barazki eta fruitu desberdinez.

2. elkarrizketa: belaunaldiz-belaunaldi nekazaria, abeltzaina eta artzaina izan den familia. Okina herriko familia hau uztaren bidez lortutako zerealen eta abereei esker lortutako haragi eta esnekien salmentatik bizi da.

3. elkarrizketa: Gasteizen egiten den Arabako ekoizleen merkatuan erosten duen gaztea.

4. elkarrizketa: supermerkatuko *eko* atalean erosten duen pertsona heldua, ezinezkoa egiten zaiolako merkatuetara joateko.

1. hausnarketa: gaiaren kokapena eta lehenengo mailako hipotesiak.

2. hausnarketa: elkarrizketaren ondorioak eta hipotesi berriak. Ondorioz, hurrengo elkarrizketaren beharra.

3. hausnarketa: elkarrizketaren ondorioak eta hipotesi berriak. Ondorioz, hurrengo elkarrizketaren beharra.

4. hausnarketa: elkarrizketaren ondorioak eta hipotesi berriak. Ondorioz, hurrengo elkarrizketaren beharra.

5. hausnarketa eta amaiera: elkarrizketa guztien ondorioak atera, hipotesiak argitu eta Euskal Herria osora estrapolatu datuak.

4.3. Gaiaren erreferentziak



Cowspiracy (2014)

Aldaketa klimatikoaren eragile handienari buruz hitz egiten du: **nekazaritza-industria eta abeltzaintza-industria**. Ikertu egiten da zergatik nekazaritza-industria gehien kutsatzen duen eragilea den eta zergatik erakundeek ez duten horren berri ematen, nahiz eta klimaren alde jarduten duten erakundeak izan.




FOOD, Inc. (2008)

Janariaren industriaren atzean dauden interes **ekonomikoei** buruz hitz egiten du, non enpresa handiek errentagarritasun ekonomikoa baino ez duten ikusten, kontsumitzaileen osasuna kontuan ez izanik. Dokumentalaren azpigai nagusietako bat etiketen kontua da; nola hitz determinatuak erabiltzen dituzten jakien jatorria izkutatzeke, edo erakargarriagoak izateko: “Kontsumitzaileak zer jaten ari den jakingo balu, beharbada ez luke berriz jan nahi izango”[5].



Sustainable (2016)

Era jasangarri batean landatzen duten ekoizle txiki asko agertzen dira dokumentalean, bakoitzak produktu desberdin landatzen dituelarik, eta haien bizimoduari buruz mintzatzen dira. **Gaur egungo merkatuari eta janari jasangarrien merkatuari** buruz hitz egiten dute produktoreek; zereal eta barazki jasangarrien eskaria, prezioa, propietate eta metodoei buruz adibidez.



[5] Food, Inc. dokumentalean erabilitako esaldia.

4.4. Lokalizazioak



Okina

Herri oso txikia eta zaharra, denbora salto bat da: **ez dago teknologia berririk** (ezta seinalerik ezta Internetik), **eraikinak eta bideak zaharrak** dira, 50 biztanle baino gutxiago ditu eta abeltzaintzatik eta nekazaritzatik biziraute duen herria da. Beraz, ia baratze eta lur-eremu gehiago dago etxe baino. Bertan bizi dira **Garaitze eta Mikel** (elkarrizketatuak).



Ribabellosa


Herri modernoa da, **zibilizazio herrikoa**: etxe berriak, tabernak, eskola eta medikua ditu. Nahiz eta oso handia ez izan, erosotasun guztiak ditu. Era garaikideko herri bat da, XXI mendean bizi den herria da. Ribabellosan **Dolores eta Miguel** bizi dira (elkarrizketatuak).



Gasteiz

Santa Barbara plaza

Ostegunero, Santa Barbara plazan **ekoizleen merkatua** antolatzen da. Bertan, Arabako ekoizleen produktuak salgai daude. Bertako produktuak, salmenta zuzenekoak, prezio justukoak, elementu kimikorik gabekoak, naturarentzako eta osasunerako mesedegarriak diren prozesuak erabiliz eginak...



Pintor Teodoro Dublang kaleko Eroski

Gasteizko populazioaren zati handi batek **janarien hornikuntza supermerkatu kateen dendetan** egiten du. Horregatik, supermerkatuan bada ere, *bio* diren eta ekoizpen jasangarriean egindako produktuak erosten dituztenen berri emango da.




Lokalizazio bakoitzak **bizitza-eredu desberdinak** ordezkatzen du: **natura, natura zibilizatua eta zibilizazioa**. Horregatik, herri bakoitza kontzeptu hauekin lotu da:

OKINA	RIBABELLOSA	GASTEIZ
Natura	Natura zibilizatua	Zibilizazioa
Eraikin zaharrak	Eraikin berriak	Eraikin handiak
Baratzea	Baratzea eta supermerkatua	Hipermerkatua
Bideak	Kale txikiak	Kale zabal eta jendetsuak
Kolore berdexkak	Kolore laranja eta horixkak	Kolore grisak
Animaliak	Jende gutxi	Jende ugari

4.4. Pertsonaiak

Kapitulu guztietan bezala, lau **elkarrizketa** burutuko dira. Kasu honetan, alde batetik **bi ekoizlerekin** hitz egingo da eta, beste alde batetik, **bi kontsumitzaileekin**.

Ekoizleak bi bikote izango dira: alde batetik, Okinan bizi den **bikote abetzaina, nekazaria eta artzaina** ogibidez; eta, beste alde batetik, **etxeko lursailean baratzea eta animaliak** dituen Ribabellosako bikote bat, kontsumo propiorako arrautzak eta barazkiak lortzen dituen.



Kontsumitzaileak, aldiz, elikagai ekologikoak erosten dituzten bi pertsona izango dira, baina bitartekari desberdinen partetik lortzen dituztenak, egoera desberdinetan bizi direlako: bata **ekoizleen markatuan** egiten ditu erosketak eta besteak, aldiz, **supermerkatuko eko atalean**.



PERFILAK

Garaitze Suso eta Mikel Polo



Okinako bikote gaztea, oinordekotzan hartu dute familiaren tradizio nekazaria, abeltzaina eta artzaina. Garaitze Gasteizkoa da eta Mikel, aldiz, Okinakoa. Elkar ezagutu zirenean, Garaitze Okinara lekualdatu zen. Jada hiru seme-alaba izanda, bikote honek esnekien eta haragiaren salmentatik lortzen ditu irabazi ekonomikoak. Familia honek nekazaritza eta abeltzaintza tradizionala gizarte industrializatu batean ordezkatzeko du. Horregatik, haiek inork baino hobeto dakite nola moldatu behar den nekazaritza eta abeltzaintza tradizionala garai modernoetara.

Dolores Cobo eta Miguel Ángel Salazar



Biak Ribabellosan jaio eta hazi dira, haien familiak belaunaldi askoz bizi izan dira herrian. Haien etxeko lursailean baratze bat egin zuten aspaldi eta urtez urte animalia gehiago erosten joan dira haiengandik baliabideak ateratzeko. Esaterako, gaur egun, baratzeaz aparte, oilategi bat, ahuntzak, antzarak eta indioilarrak dituzte, txakur bat eta untxi bat izateaz aparte. Batez ere arrautzak eta barazkiak erabiltzen dituzte beren kontsumorako eta familiaren kontsumorako.

Marta Martins



23 urteko neska gaztea. Amarekin eta anaia-rekin bizi da eta elikagai gehienak Gasteizko ekoizleen merkatuetan erosten dituzte, lan ordutegiak eta bizilekuaren distantziak ahalbidetzen dutelako.

Gorka López de Alda



Elikagai ekologikoak eta jasangarriak kontsumitu nahi ditu, baina ezinezkoa egiten zaio astero merkatu batera joatea. Horregatik, elikagaiak supermerkatuan erosten ditu, baina eko atalean edo, behintzat, elikagaien etiketa miatzen du horien jatorria eta osagaiak identifikatzeko.

4.6. Ekoizpen plana

Iraila	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA
07-09	Dokumentazioa eta gidoia	Dokumentazioa eta gidoia	Dokumentazioa eta gidoia	Dokumentazioa eta gidoia	Dokumentazioa eta gidoia
14-18	Grabazioa	Grabazioa	Grabazioa	Grabazioa	Grabazioa
21-25	Edizioa	Edizioa	Edizioa	Edizioa	Edizioa

Jaki-n programako lehenengo kapitulua ekoizteko, **hiru aste** beharko dira, gainerako kapituluentzako bezala. Beraz, dokumentazioa eta gidoia irailaren 7an ekoizten hasiko lirateke. Izan ere, lehenengo kapitulu honen emisio data irailaren 30a izango litzateke.

Kapitulu guztietan bezala, fase bakoitza jorratzeko **aste oso bat** izango du lan-taldeak:

Zuzendariak eta erredaktoreek aste bat izango dute dokumentazioa burutzeko eta gidoia prestatzeko. Errealizadoreak, ekoizleak kamerariek eta zuzeneko soinu teknikariak beste astebete izango dute multikamara grabazioak burutzeko eta, azkenik, errealizadoreak, editoreek eta soinu posproduktzio teknikariek beste astebete izango dute edizioa eta posproduktzioa egiteko.

4.7. Eskaleta

Blokeak	Edukia	Irudia	Soinua	Iraupena	Iraupen totala
1 SARRERA + KARETA	Gaiaren kokapena	Drone: hartualdi luzeak, plano oso orokorrak + infografia	Maialenen off ahotsa	1' 00"	1'00"
2 HAUSNARKETA_1	Zalantzak agertu + hipotesiak bota	Plano estatikoak: lehen planoak eta plano ertainak	Maialenen off ahotsa + giro soinua	3' 00"	4' 00"
3 OILATEGIA	Elkarrizketa_1	Plano estatikoak + mugikorrak K1_ plano ertainak K2_ plano orokorrak	Zuzeneko soinua	8' 00"	12' 00"
	<i>Reality</i> egoerak_1	Plano mugikorrak K1_ Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	-Off ahotsa: Elkarrizketaren erantzunak -Zuzeneko soinua	2' 00"	14'00"
4 HAUSNARKETA_2	Elkarrizketan hitz egindakoaren inguruan + hipotesi berriak	Plano mugikorrak: lehen planoak eta plano ertainak	Maialenen off ahotsa	1'30"	15'30"
5 ABELTEGIA	Elkarrizketa_2	Plano estatikoak + mugikorrak K1_ plano ertainak K2_ plano orokorrak	Zuzeneko soinua	8' 00"	23'30"

	<i>Reality</i> egoerak_2	Plano mugikorrak K1_Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	-Off ahotsa: Elkarrizketaren erantzunak -Zuzeneko soinua	2'00"	25'30"
6 HAUSNARKETA_3	Elkarrizketan hitz egindakoaren inguruan + hipotesi berriak	Plano mugikorrak: lehen planoak eta plano ertainak	Maialenen off ahotsa	1'30"	27'00"
7 MERKATUA	Elkarizketa_3	Plano estatikoak + mugikorrak K1_plano ertainak K2_plano orokorrak	Zuzeneko soinua	8' 00"	35'00"
	<i>Reality</i> egoerak_ 3	Plano mugikorrak K1_Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	-Off ahotsa: Elkarrizketaren erantzunak -Zuzeneko soinua	2'00"	37'00"
8 HAUSNARKETA_4	Elkarrizketan hitz egindakoaren inguruan + hipotesi berriak	Plano mugikorrak: lehen planoak eta plano ertainak	Maialenen off ahotsa	1'30"	38'30"
9 SUPERMERKATUA	Elkarizketa_4	Plano estatikoak + mugikorrak K1_plano ertainak K2_plano orokorrak	Zuzeneko soinua	8' 00"	46'30"

	Reality egoerak_4	Plano mugikorrek K1_Plano ertainak K2_Xehetasun planoak	-Off ahotsa: Elkarrizketaren erantzunak -Zuzeneko soinua	2'00"	48'30"
10 HASNARKETA_5	Lau elkarrizketatako informazioak konparatu, ondorioztapenak egin	Plano mugikorrek: lehen planoak eta plano ertainak	Maialenen off ahotsa	3'00"	51'30"
BUKAERA	Estrapolatu	Infografia + Drone: hartualdi luzeak, plano oso orokorrak	Maialenen off ahotsa	2'00"	53' 30"



4.8. Gidoi literarioa

1.SARRERA ETA HAUSNARKETA_1

Jasangarria. “Beharren asetzea, ondorengo belaunaldien gaitasunak arriskuan jarri gabe, hazkuntza ekonomikoaren, naturaren zaintzearen eta ongizate sozialaren arteko oreka bermatuz”.

Orduan, zerbait jasangarria izateko, orainaldian eta etorkizunean ez du inpaktu negatiborik, beraz etengabe ekoiztu daiteke. Bai, adibidez Henarren gurasoak. Haien oiloak dituzte arrautzak izateko eta baratze bat dute. Horrela gauza gutxiago erosten dituzte Eroskin. Baina, klaro, gu Ribabellosan bizi gara, lekua daukagu. Hirietan bizi direnek ezin dute baratzerik izan. Guztiek baratze bat izango balute, munduan ez litzateke lekurik egongo!

Baina orduan, nekazaritza eta abeltzaintza tradizionala ez du “beharren asetze” hori egiten gaur egun. Beraz, ez da jasangarria? Orduan zer da jasangarria gaur egun? Hau argitu behar dut.

2. ELKARRIZKETA_1: DOLORES ETA MIGUEL

-Vosotros el gallinero y la huerta desde cuando la tenéis?

-Ahora en la huerta, por ejemplo, qué tenéis?

-Y como así? Quiero decir, tenemos el Eroski al lado...

-Esto es para consumo propio.. Osea cada uno tiene su trabajo y así, esto es simplemente para vosotros, no? Para comprar menos igual...

-Es la suerte de vivir en un pueblo, que tenemos todos jardín para poder tener una huerta... Si vivieramos en una ciudad me imagino que ya más difícil, o directamente imposible...

-Claro es que yo antes he pensado: claro, está muy bien tener una huertita, porque las industrias nos comen, sobre todo aquí, que estamos rodeados de industrias. Pero los que viven en una ciudad no pueden tener huertita, necesitan las fábricas y las macroplantaciones y todo eso...

2.1. REALITY EGOERA 1

Doloresek arrautzak hartzen ditu eta kutxatxoan sartzen ditu

2.2. REALITY EGOERA 2

Miguel animaliei jatekoa jartzen die eta animaliak gerturatzeko dira jateko.

2.3. REALITY EGOERA 3

Miguelek baratze barazkiak nola dauden begiratzen ditu, ukitzen ditu...

2.4. REALITY EGOERA 4

Doloresek baratze barazki batzuk sukaldatzen ditu

3. HAUSNARKETA_2

Ea guztiok egin dezakegun Dolores eta Miguelek egiten dutena, hiritarrak barne. Hirietako biztanleriaren hornikuntza jasangarria nahi badu, ekoizle batengana jo beharko du, gehiengak ezin duelako baratz propioa izan. Horregatik, arabar ekoizle batekin hitz egin beharra dago.

4. ELKARRIZKETA_2: MIKEL ETA GARAITZE

-Esta granja, la huerta y las tierras han sido de la familia desde siempre, no? Cada vez ha sido más tierra o siempre ha sido así?

-Cuantos animales tenéis?

-Cómo es cuidarlos? Tendréis que tener una rutina muy marcada...

-Y vosotros vendéis lo que producís, no?

-Cómo lo vendéis? A particulares, a empresas...

-Os va bien con eso?

-Creeis que tendréis algun problema en el futuro?

-Hay mucha competencia?

-Creeis que este modelo de producción podría ser el único? Quiero decir, si suprimieramos la industria cárnica por ejemplo, y toda la gente que consume carne de ahí consumiera carne como la que hacéis vosotros, habría para todos?

4.1. REALITY EGOERA 1

Mikelek animaliak laztantzen ditu/ arreta prestatzen die

4.2. REALITY EGOERA 2

Mikel traktorearekin lurra lantzen du

4.3. REALITY EGOERA 3

Garaitzek berak egindako gaztak hartzen ditu eskuekin eta buelta ematen die, begiratzen du nola dauden...

4.4. REALITY EGOERA 4

Mikel behiak jasotzen ditu eta abeltegira sartzen ditu

5. HAUSNARKETA_3

Nekazaritza eta abeltzaintza tradizionala gaur egungo gizarte industrializatuan zein leku duen eta zein leku izan dezakeen pentsatu. Bada, populazio kopuruak gero eta gehiago egiten du gora eta beraz, nahiak eta beharrak gero eta gehiago dira. Aldiz, nekazaritza eta abeltzaintza tradizionalak lur-sail eremu zabala behar dute, beraz, industriarik gabe, izaki guztiak asetzeko gai al da?

6. ELKARRIZKETA 3

- Astero merkatura zatoz elikagaiak erostera. Guzti guztia erosten al duzu hemen?
- Sasoiko elikagaiak jaten dituzu beti, ezta?
- Beti egin dituzu erosketak merkatuan? Txikitatik ere?
- Zer dela-eta hautatu duzu ekoizleen merkatuan erostea?
- Ordutegi finkoa dute merkatuek, inoiz izan al dituzu arazoak horrekin? Lanagatik, beste betebeharrengatik...
- Urte hauetan somatu al duzu gero eta jende gehiago merkatuan?

REALITY EGOERA 1

Marta merkatutik ibiltzen du

REALITY EGOERA 2

Merkatuko produktuak gertutik

REALITY EGOERA 3

Martak produktuak hartzen ditu

REALITY EGOERA 4

Marta dendariekin hitz egiten

7. HAUSNARKETA 4

Ekoizleen merkatu batean erosi ahal izateko aspektu asko behar dira alde egon: askotan garraiobi-deak behar dira, ordutegi propioak bat egin behar du merkatuaren ordutegiarekin...

8. ELKARRIZKETA 4

- Zuk supermerkatuan erosten dituzu elikagaiak, baina eko atalean. Zer dela-eta ez zara merkatuetara bertaratzen?
- Kalitate onekoak dira supermerkatuko eko elikagaiak?
- Betidanik erosten al dituzu eko elikagaiak?
- Nongoak dira elikagai horiek, orokorrean? Bertokoak gailentzen dira?
- Zeri erreparatzen diozu produktu bat aukeratzeko orduan?
- Zein osagai ekiditzen duzu?
- Produktu-aniztasuna al dago?

REALITY EGOERA 1

Gorka supermerkatuko pasilloetatik ibiltzen

REALITY EGOERA 2

Erosketetarako orga

REALITY EGOERA 3

Gorkak produktuak hartzen ditu apeletatik

REALITY EGOERA 4






Gorkak produktuen osagaiak irakurtzen ditu

9. BUKAERA








Lau elkarrizketetatik ateratako datu eta adierazpen garrantzitsuenak hartu eta elkarren artean kon-paratu, marko generiko bat sortzeko. Jarraian, ondorioztapenak egin eta datuak Euskal Herrira estrapolatu.











4.9. Gidoi teknikoa eta storyboard-a










1. BLOKEA: SARRERA	EZAUGARRI TEKNIKOAK			IRUDIAREN	SOINUA	OHARRAK	MARRAZKIAK
	Enkuadrea	Angulazi oa	Mugimen dua	DESKRIBAPENA		Gidoi literarioa	
	Plano orokorrak	Normala	Travelling: drone	Okinako eta Ribabellosako paisaiak tartekatu + definizioaren infografia	Maialenen off ahotsa	“Jasangarria. ‘Beharren asetzea, ondorengo belaunaldien gaitasunak arriskuan jarri gabe, hazkuntza ekonomikoaren, naturaren zaintzearen eta ongizate sozialaren arteko oreka bermatuz’”.	
2. BLOKEA: HAUSNARK ETA_1	EZAUGARRI TEKNIKOAK			IRUDIAREN	SOINUA	OHARRAK	MARRAZKIAK
	Enkuadrea	Angulazi oa	Mugimen dua	DESKRIBAPENA		Gidoi literarioa	
	Plano orokor handiak	Kontrapi katua	Estatikoa	Maialen ibiltzen		“Baina, klaro, gu Ribabellosan bizi gara, lekua daukagu.	
	Plano orokorrak	Normala	Estatikoa	Maialen ibiltzen, kamerarantz		Hirietan bizi direnak ezin dute baratzerik izan. Guztiek baratze bat izango balute, munduan ez litzateke lekurik egongo!	
	Xehetasun planoak	Normala	Estatikoa	Maialenen oinak, ibiltzen, kameratik aldenduz		Baina, hala bada, nekazaritza eta abeltzaintza tradizionala ez du “beharren asetze” hori egiten gaur egun. Beraz, ez da jasangarria? Orduan zer da jasangarria gaur egun?”	
	Plano ertainak	Normala	Estatikoa	Maialen atzetik, ibiltzen, kameratik aldenduz			

















		EZAUGARRI TEKNIKOAK					OHARRAK	
3. BLOKEA: ELKARRIZKE TA_1	Enkuadrea	Angulazi oa	Mugimen dua	IRUDIAREN DESKRIBAPENA	SOINUA	Zer entzungo da?	MARRAZKIAK	
	Elkarrizketaren sarrera							
	Plano orokorrak	Pixka bat kontra- pikatua	Estatikoa	Maialen Dolores eta Miguelen etxera heltzen da.	Zuzeneko soinua	Giro soinua		
	Xehetasun planoak	Normala	Estatikoa	Maialenek tinbrea jotzen du				
	Xehetasun planoak	Normala	Estatikoa	Doloresen eskua, atea irekitzen				
Plano ertainak	Normala	Estatikoa	Biak elkarri agurtzen diote eta barrura sartzen dira					
Plano orokorrak	Normala	Estatikoa	Maialen eta Dolores oilategira heltzen dira	Zuzeneko soinua	Bat-bateko elkarrizketa informala			
Elkarrizketa								
K1_Plano ertainak K2_ plano orokorrak	Normala	Estatikoa	Elkarrizketa: Maialen eta Dolores oilategian, bata bestearen parean baina kamerarantz pixka bat biratuta	Zuzeneko soinua	Elkarrizketaren galderak: -Vosotros el gallinero y la huerta desde cuando la tenis? -Ahora en la huerta, por ejemplo, qué tenis? -Y como así? Quiero decir, tenemos el Eroski al lado... -Esto es para consumo propio.. Osea cada uno tiene su trabajo y así, esto es simplemente para vosotros, no? Para comprar menos igual... -Es la suerte de vivir en un pueblo, que tenemos todos jardin para poder tener una huerta... Si vivieramos en una ciudad me imagino que ya más difícil, o directamente imposible... -Aquí lo tenemos fácil, pero para los que viven en una ciudad es más difícil, se necesitan las fábricas y las macroplantaciones para abastecerles	 		

















Reality egoerak							
	K1_ Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	Normala	Mugikorra	Doloresek arrautzak hartzen ditu eta kutxatxoan sartzen ditu	Zuzeneko soinua + off ahotsa	Giro soinua 	
	K1_ Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	Normala	Mugikorra	Miguel animaliei jatekoa jartzen die eta animaliak gerturatzeko dira jateko.			
	K1_ Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	Normala	Mugikorra	Miguelek baratzeko barazkiak nola dauden begiratzen ditu, ukitzen ditu...			
	K1_ Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	Normala	Mugikorra	Doloresek baratzeko barazki batzuk sukaldatzen ditu			
4. BLOKEA: HAUSNARK ETA_2	EZAUGARRI TEKNIKOAK			IRUDIAREN DESKRIBAPENA	SOINUA	OHARRAK	
	Enkuadrea	Angulazioa	Mugimenak			Zer entzungo da?	MARRAZKIAK
	Lehen planoak	Normala	Mugikorra : Travelling in	Maialenen burua atzetik, ibiltzen	Maialenen off ahotsa	Bi elkarrizketatako informazioak konparatu, ondorioztapenak egin 	
	Plano ertainak	Normala	Estatikoa	Maialenen hankak ibiltzen			
	Plano amerikarrak	Normala	Estatikoa	Maialen eskuinetik agertzen da, eta ezkerretik joaten da (ibiltzen, perfilez)			
	Plano ertainak	Normala	Estatikoa	Maialen kotxera joaten da eta sartzen da			










5. BLOKEA: ELKARRIZKE TA_2	EZAUGARRI TEKNIKOAK			IRUDIAREN DESKRIBAPENA	SOINUA	OHARRAK	MARRAZKIAK
	Enkuadrea	Angulazi oa	Mugimen dua			Zer entzungo da?	
Elkarrizketaren sarrera							
	Plano orokorrak	Normala	Travelling	Okinako paisaia	Over ahotsa	Musika	
	Plano orokorrak	Normala	Estatikoa	Maialen kotxearekin heltzen da	Zuzeneko soinua	Giro soinua	
				Garaitze eta Mikelen etxera.			
	Plano ertainak	Normala	Estatikoa	Maialen kotxetik ateratzen da			
	Xehetasun planoak	Normala	Estatikoa	Maialenek tinbrea sakatzen du			
	Xehetasun planoak	Normala	Estatikoa	Mikelen eskuak atea irekitzen du			
	Plano ertainak	Normala	Estatikoa	Elkarri agurtzen diote eta planotik joaten dira	Zuzeneko soinua	Bat-bateko elkarrizketa informala	
	Plano orokorrak	Normala	Estatikoa	Maialen eta Mikel abeltzera heltzen dira			
Elkarrizketa							
	K1_Plano ertainak K2_plano orokorrak	Normala	Estatikoa	Elkarrizketa: Maialen eta Mikel oilategian, bata bestearen parean, baina kamerarantz pixka bat biratuta	Zuzeneko soinua	Elkarrizketaren galderak: -Esta granja, la huerta y las tierras han sido de la familia desde siempre? -Cada vez ha sido más tierra o siempre ha sido así? -Cuántos animales tenéis? Cómo es cuidarlos? Tendréis que	 

						<p>tener una rutina muy marcada...</p> <p>-Vendéis lo que producís? Cómo? Particulares, a empresas...</p> <p>-Os va bien con eso? Creéis que tendrís algun problema en el futuro?</p> <p>-Hay mucha competencia?</p> <p>-Creéis que este modelo de producción podría ser el único? Por ejemplo, si suprimieramos la industria cárnica y toda la gente que consume carne de ahí consumiera carne como la que hacéis vosotros, tradicional, habría para todos?</p>	
Reality egoerak							
	K1_ Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	Normala	Mugikorra	Mikelek animaliak laztantzen ditu/ arreta prestatzen die	Zuzeneko soinua + off ahotsa	Giro soinua + erantzunak	
	K1_ Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	Normala	Mugikorra	Mikel traktorearekin lurra lantzen du			
	K1_ Plano ertainak	Normala	Mugikorra	Garaitzek berak egindako gaztak hartzen ditu eskuekin eta			
	K2_ Xehetasun planoak			buelta ematen die, begiratzen du nola dauden...			
	K1_ Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	Normala	Mugikorra	Mikel behiak jasotzen ditu eta abeltegira sartzen ditu			

6. BLOKEA: HAUSNARK ETA_3	EZAUGARRI TEKNIKOAK			IRUDIAREN DESKRIBAPENA	SOINUA	OHARRAK	MARRAZKIAK
	Enkuadrea	Angulazi oa	Mugimen dua			Zer entzungo da?	
	Lehen planoak	Normala	Mugikorra : Travelling in	Maialen burua atzetik, ibiltzen	Maialenen off ahotsa	Barne pentsamenduak	
	Plano ertainak	Normala	Estatikoa	Maialenen hankak ibiltzen			
	Plano amerikarrak	Normala	Estatikoa	Maialen eskuinetik agertzen da, eta ezkerretik joaten da			
	Plano ertainak	Normala	Estatikoa	Maialen kotxera joaten da eta sartzen da			
7. BLOKEA: ELKARRIZKE TA_3	EZAUGARRI TEKNIKOAK			IRUDIAREN DESKRIBAPENA	SOINUA	OHARRAK	MARRAZKIAK
Enkuadrea	Angulazi oa	Mugimen dua	Zer entzungo da?				
Elkarrizketaren sarrera							
	Plano orokorrak	Normala	Travelling	Santa Barbara plazako merkatua	Over ahotsa	Musika	
	Plano orokorrak	Normala	Estatikoa	Maialen kotxetik ateratzen da, Gasteizen	Zuzeneko soinua	Giro soinua	
	Plano ertainak	Normala	Estatikoa	Maialen merkatura heltzen da			
	Xehetasun planoak	Normala	Estatikoa	Postuetako produktuak		Bat-bateko elkarrizketa informala	
	Xehetasun planoak	Normala	Estatikoa	Maialenek eta Martak elkarri eskua luzatzen diote			
	Plano ertainak	Normala	Estatikoa	Maialen eta Marta agurtzen dira			

Elkarrizketa							
	K1_ Plano ertainak K2_ plano orokorrak	Normala	Estatikoa	Elkarrizketa: Maialen eta Marta merkatuko bazter batan, bata bestearen parean, baina kamerarantz pixka bat biratuta	Zuzeneko soinua	Elkarrizketaren galderak: -Astero merkatura zatoz elikagaiak erostera. Guzti guztia erosten al duzu hemen? -Sasoiko elikagaiak jaten dituzu beti, ezta?	
Reality egoerak							
	K1_ Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	Normala	Mugikorra	Marta merkatutik ibiltzen du	Zuzeneko soinua + off ahotsa	Giro soinua + erantzunak	
	K1_ Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	Normala	Mugikorra	Merkatuko produktuak			
	K1_ Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	Normala	Mugikorra	Martak produktuak hartzen ditu			
	K1_ Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	Normala	Mugikorra	Marta dendariekin hitz egiten			
8. BLOKEA: HAUSNARK ETA_4	EZAUGARRI TEKNIKOAK			IRUDIAREN DESKRIBAPENA	SOINUA	OHARRAK	MARRAZKIAK
	Enkuadrea	Angulazioa	Mugimendua			Zer entzungo da?	
	Lehen planoak	Normala	Mugikorra : Travelling in	Maialen burua atzetik, ibiltzen	Maialenen off ahotsa	Barne pentsamenduak	
	Plano ertainak	Normala	Estatikoa	Maialenen hankak ibiltzen			
	Plano amerikarrak	Normala	Estatikoa	Maialen eskuinetik agertzen da, eta ezkerretik joaten da			

9. BLOKEA: ELKARRIZKE TA_4	EZAUGARRI TEKNIKOAK			IRUDIAREN DESKRIBAPENA	SOINUA	OHARAK	MARRAZKIAK
	Enkuadrea	Angulazi oa	Mugimen dua			Zer entxungo da?	
Elkarrizketaren sarrera							
	Plano orokorrak	Normala	Travelling	Eroski supermerkatuko kanpoko aldea	Over ahotsa	Musika	
	Plano orokorrak	Normala	Estatikoa	Maialen bertara sartu eta ateratzen da	Zuzeneko soinua	Giro soinua	
	Plano ertainak	Normala	Estatikoa	Maialen eta Gorka agertzen dira planoan, bakoitza leku batetik		Bat-bateko elkarrizketa informala	
	Xehetasun planoak	Normala	Estatikoa	Eskua ematen diote elkarri			
Elkarrizketa							
	K1_Plano ertainak K2_plano orokorrak	Normala	Estatikoa	Elkarrizketa: Maialen eta Gorka supermerkatuko sarreran, bata bestearen parean, baina kamerarantz pixka bat	Zuzeneko soinua	Elkarrizketaren galderak: -Zuk supermerkatuan erosten dituzu elikagaiak, baina <u>eko</u> atalean. Zer dela-eta ez zara merkatuetara bertaratzen? -Kalitate onekoak dira supermerkatuko <u>eko</u> elikagaiak? -Betidanik erosten al dituzu <u>eko</u> elikagaiak? -Nongoak dira elikagai horiek, orokorrean? Bertokoak gailentzen dira? -Zeri erreparatzen dionzu produktu bat aukeratzeko orduan? -Zein osagai <u>ekiditzen</u> duzu? -Produktu-aniztasuna al dago?	 

Reality egoerak							
	K1_ Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	Normala	Mugikorra	Gorka supermerkatuko pasilloetatik ibiltzen	Zuzeneko soinua + off ahotsa	Giro soinua + erantzunak	
	K1_ Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	Normala	Mugikorra	Erosketetarako orga			
	K1_ Plano ertainak K2_ Xehetasun planoak	Normala	Mugikorra	Gorkak produktuak hartzen ditu apeletatik			
	K2_ Xehetasun planoak	Normala	Mugikorra	Gorkak produktuen osagaiak irakurtzen ditu			
10. BLOKEA: HAUSNARK ETA_5	EZAUGARRI TEKNIKOAK			IRUDIAREN DESKRIBAPENA	SOINUA	OHARRAK	MARRAZKIAK
	Enkuadrea	Angulazioa	Mugimendua			Zer entzungo da?	
	Lehen planoak	Normala	Mugikorra: Travelling in	Maialen burua atzetik, ibiltzen	Maialenen off ahotsa	Barne pentsamenduak	
	Plano ertainak	Normala	Estatikoa	Maialenen hankak ibiltzen			
	Plano amerikarrak	Normala	Estatikoa	Maialen eskuinetik agertzen da, eta ezkerretik joaten da			
	Plano ertainak	Normala	Estatikoa	Maialen kotxera joaten da eta sartzen da			
11. BLOKEA: AMAIERA	EZAUGARRI TEKNIKOAK			IRUDIAREN DESKRIBAPENA	SOINUA	OHARRAK	MARRAZKIAK
	Enkuadrea	Angulazioa	Mugimendua			Zer entzungo da?	
	Plano oso orokorrak	Normala	Travelling: drone	Okinako, Ribabellosako eta Gasteizko paisaiak tartekatuta	Maialenen off ahotsa	Datuak Euskal Herri osora estrapolatu	


4. 10 Elkarrizketa blokeen plantak

Elkarrizketa blokeetan jarrituko den planta berdina izango da kasu guztietan, salbuesenak salbuespen.

Multikamara errealizazio teknika eramango direnez aurrera, pertsonaiak estrategikoki ko-

katu behar dira gelan, planoetan interfe-
rentziarik ez egoteko.

Lokalizazioek programan garrantzi handia izango dutenez, elkarrizketetan plano ertainak eta plano orokorrak erabiliko dira.



5. ONDORIOAK

Kazetaritzako ikaslea izanik, ikus-entzunezko munduan ez dut ezagupenik: kontzeptu eta oinarri teorikoetan gabeziak ditut. Hori izan da, hain zuzen, lan mota hau hautatzearen arrazoi nagusia: kazetaritza graduan sakontzen ez den **ikus-entzunezko esparrua jorratzeko beharra** ikusi dut nire heziketa osatzeko eta biribiltzeko.

Beraz, atal batzuen lanketa oso zaila izan da niretzat: **kontzeptu teoriko berriak ikasi behar izan ditut eta hauek praktikara eraman, eta guzti hau bi hilabetetan**. Hala ere, ikus-entzunezko munduaren ezagutza berri horiek kazetaritzako ezagutzekin bateratzeko **aukera ezin hobea** izan dut: iturrien aukeraketa, dokumentazio lana, informazioen egiaztapena, lurraldetasuna, hizkuntza... Honen guztiaren emaitza bertan aurkezten dudana proiektua da.

Horretaz aparte, guztiontzako ezohikoa izan den egoera bizi izan dugu azken bi hilabetetan. **Covid-19 birusak** eraginda, gure bizitzako arlo gehienak moldatu behar izan ditugu eta osasun-egoera larria bizi dugu oraindik ere.

Hori dela eta, martxoan, azarotik landu egin nuen **sormen lan baten produkzioa bertan**

behera utzi behar izan nuen eta Gradu Amaierako Lanaren eredu egokitu. Dokumentala izan behar zuena, azkenean 8 kapituluko erreportaje telebista programa bilakatu da, bi hilabeteko lan eta esfortzu handiaren ondorioz.

Gradu Amaierako Lana egoera honetan eta baldintza hauekin egin behar izanak ere **esparru pertsonalean** eragina izan du. Gradu bat eta horren amaierako lana konfinamenduan amaitu behar izana, etxetik atera gabe, baliabide mugatuekin, etorkizunaren inguruko ezjakintasun osoz... zaila izan da. Guzti honi, halaber, arazo teknikoak eta teknologikoak gehitu behar zaizkio.

Hala ere, kemenez eta lan handiarekin zailtasun horiei aurre egin eta asko ikasi dut telebistagintzaren inguruan: telebista programa baten egitura, lan taldea, aurrekontua, ikus-entzunezko erreferentziak...

Heziketak ez dauka mugarik, beti dagoelako zer edo zer berri ikasteko. Lan honek baieztatu egin dit nire ibilbidea kazetaritza eta ikus-entzunezko komunikazioaren baitan izango dela, hori baita nire jakin-mina eta motibazioa pizten duena.



JAKI-N

BIBLIOGRAFIA

- Aldaketa Klimatikoko Adituen Gobernuarteko Taldea (2019). *Climate Change and Land: an IPCC special report on climate change, desertification, land degradation, sustainable land management, food security, and greenhouse gas fluxes in terrestrial ecosystems*
- Ekologistak Martxan. (2020 apirilaren 6a). *Biodibertsitatea eta giza osasuna*. Ekologistak Martzan. Hemendik hartuta: <https://www.ecologistasenaccion.org/140497/>
- Azurmendi, E. (2018ko urriaren 1a). *¿Por qué se mueren los pinos en Euskadi?*. Eldiario.es. Hemendik hartuta: https://www.eldiario.es/norte/euskadi/mueren-pinos-Euskadi_0_820318937.html
- Garrosa, M.A. (2019ko abuztuaren 15a). *La meteorología despierta 'la banda marrón': los hongos se están comiendo los pinos del norte*. El Tiempo Hoy. Hemendik hartuta: https://www.eltiempohoy.es/latierra/medio-ambiente/enfermedad-hongos-pinos-pais-vasco-norte-calor-humedad_18_2761770073.html
- Goti, N. (2020 urtarrilaren 24a). *Manifestación en Enkarterri «por la salud» frente a Glefaran, una incineradora de biomasa* Naiz. Hemendik hartuta: <https://www.naiz.eus/es/actualidad/noticia/20200124/manifstacion-en-enkarterri-por-la-salud-frente-a-glefaran-una-incineradora-de-biomasa>
- Argia. (2020ko maiatzaren 9a). *Zubietako erraustegitik behera doan errekan ehunka arrain agertu dira hilda larunbatean*. Argia. Hemendik hartuta: <https://www.argia.eus/albiste/zubietako-erraustegitik-behera-doan-errekan-ehunka-arrain-agertu-dira-hilda>
- Naiz. (2020ko maiatzaren 10a). *Zubietako erraustegiaren ondoko erreka batean izandako isurketa ikertzen ari dira*. Naiz. Hemendik hartuta: <https://www.naiz.eus/es/actualidad/noticia/20200510/erraustegiaren-ondoko-erreka-batean-izandako-isurketa-ikertzen-ari-dira>
- Azkarraga, J. (2011ko apirilaren 3a). *Euskal Harriak*. 111. Akademia. Hemendik hartuta: <https://www.111akademia.eus/liburuak/idazleak/joseba-azkarraga-etxegibel/2011/04/03/euskal-harriak/>
- Eustat. (2018ko martxoaren 20a). *Tres de cada cinco personas que residen en la C.A. tienen algún conocimiento de euskera en 2016*. Eustat. Hemendik hartuta: https://www.eustat.eus/elementos/Tres_de_cada_cinco_personas_que_residen_en_la_CA_de_Euskadi_tienen_algun_conocimiento_de_euskera_en_2016/not0014683_c.html
- Eusko Jaurlaritza eta HAZI erakundea (2016). *Haragi-sektorearen egoera EAEn*.
- Proveg. (2019) *Más allá de la carne*. Hemendik hartuta: <https://proveg.com/es/masalladelacarne/>
- EITB, (2018ko ekainaren 27a), *'Ur Handitan' despide la temporada con un amplio respaldo de la audiencia*, EITB. Hemendik hartuta: <https://www.eitb.eus/es/television/detalle/5693924/buenas-audiencias-ur-handitan-al-final-temporada-2017-2018/>

- 20 minutos. (2020ko Martxoaren 24a). El hormiguero vuelve pegando fuerte y anota máximo de audiencia. 20 minutos aldizkaria. Hemen kontsultatuta: <https://www.20minutos.es/noticia/4202560/0/el-hormiguero-vuelve-pegando-fuerte-y-anota-maximo-de-audiencia/>

-Illusion Studio. (2013ko uzatailaren 5a). *Psicología del color verde hoja*. Psicología del color. Hemendik hartuta: <https://www.psicologiadelcolor.es/project/psicologia-del-color-verde-hoja/>

-VIZZ agentzia. (2018ko urria), *Estudio estratégico de influencers*.

- Monson, S. (2005). *Earthlings*.

- Andersen, K. eta Khun, K. (2014). *Cowspiracy*.

- Wechler, M. eta Speicher, A. (2016). *Sustainable*.

-Goenaga J. M. (2011). *Lagun mina*.

- Boletín Oficial del Estado (2017). *Tablas salariales año 2017*. III Atala 31844-31845.



ERANSKINAK



ORIGINALTASUN KONPROMISOA

Mesedez, irakurri jarraian agertzen den informazioa eta sinatu bukaeran.

1. Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera, plagioa da "besterenak diren obrak kopiatu edo imitazioa, norberak eginak balira bezala azaltzeko egiten dena."
2. Zehazkiago, plagiotzat hartzen dira honako ekintza hauek:

1. Inoren lana entregatzea norberarena balitz bezala.
2. Testu zatiak osorik eta aldaketarik egin gabe kopiatzea.
3. Testu zatiak kopiatzea hitz batzuk aldatuta. Horrek barne hartzen ditu beste hizkuntza batetik GRALaren hizkuntzara egindako testu zatien itzulpenak.
4. Iturri desberdinak konbinatzea, inolako erreferentziarik eman gabe.
5. Lana iturri desberdinen birformulazio bat izatea.
6. Norberak aldeaz aurretik egindako lana berrerabiltzea, eta, ondorioz, originaltasun baldintza urratzea.
7. Egilea aipatzea baina iturria aurkitzeko beharrezkoak diren datu guztiak eman gabe.
8. Aipatutako iturriak aurkitu ezin izatea, iturriok okerrak direlako.
9. Egilea aipatzea baina hitzez hitzezko aipamena kakotzen artean jarri gabe, inorena den interpretazio bat norberarena balitz bezala aurkeztuta.
10. Aipamenak eta erreferentziak zuzenak izatea, baina horiek artikulua zati handiena hartzea.
11. Egile baten hizkera sortzailea erabiltzea dagokion aitortzen egin gabe.
12. Inoren ideiak norberarenak balira bezala aurkezteak.
13. Beste egile baten arrazoiketari jarraitzea, jatorrizko artikuluan agertzen denaren antzera.
14. Beste arteterlan batzuetako datuak plagiatzea.

Mitratoreen egokitzapena¹:

¹ Morató, Yolanda. 2012. "Una reflexión necesaria sobre el plagio en el EEES". UPO INNOVA aldubaria, 1. bot.: 361-368.



ORIGINALTASUN KONPROMISOA

3. "La necesidad de citar no se ciñe en exclusiva a los textos impresos sino también a otros medios, ya sean visuales u orales"³
4. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatean Gradu Amaterako Lana egin eta defendatzean buruzko arautegiko 2. artikularekin bat, Gradu Amaterako Lana gauratzeko, ikasle bakoitzak, banaka, proiektu, memoria edo azterlan original bat egin behar du (...).
5. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Kazetaritza _____Graduko GRALaren irakaskuntza gidak beren beregi jasotzen du honako hau: **Erabat dehekatuta dago** testuen zatiak hitz idotzea (izan liburuetakoak, aldizkari zientifikoetako artikuluetakoak, testetakoak, web orrietakoak, etab.), baldin eta ez bada behar bezala aipatzen testuan alde aurretik eta ez bada identifikatzen berau lortzen den iturria. Bestela, plagioztat hartuko da eta lanak zero kalifikazioa izango du."

Oharra: Fakultateko irakaslegoak eskura dituela plagioari aurre egiteko eta detektatzeko tresnak, bai tutoratza prozesuaren zehar bai ikasleak GRALA bukatu eta aurkezten den unean.

Nik, Maialen Apoita Sáenz de Cámara _____(e)k, _____NAN zenbakidunak, zurreko paragrafoetan jasotakoa irakurri eta ulertu dut.

Hori kontuan izanda, banaka hau adierazten dut:

Nire Gradu Amaterako Lana, JAKI-N _____izenburua duena eta Aintzane Pagadigorria Ruiz _____(e)k zuzenduta dagoena, originala da.

Eta behar den lekuan jasota gero dadin, agiri hau sinatzen dut.

Letoa, 2019ko Maiatzaren _____aren 27 _____a

Stua:-

³Morató, op.cit., 2012, 163. ur.